


BEDENKAPEN LIBURUA

BEDENKAPEN
LIBURUA



Euskal Biblioteka Labayru



1042497

RELIGIÓN / N. 1978

BEDIEINKAPIEN
LIBURUA

BEDEINKAPEN LIBURUA izeneko liburu hau Euskal Elizbarrutietako Liturgia Batzordeak prestatua izan da.

ISBN 84-87002-79-X



9 788487 002793

Jabe: Euskalerriko Elizbarrutiak.
Argitaratzaile: Bilboko Elizbarrutia.
Egileak: Karmelo Etxenagusia
Andoni Gerrikaetxebarria
Lontzo Zugazaga
Fernando Elorrieta
Felix Alonso
José Mari Rementería
Jose Luis Iza
Juan Bizente Gallastegui

Fotokonposizinoa: IKUR, S.A.
Imprimategia: BASTER Talleres Gráficos S.L.L.

I.S.B.N.: 84-87002-79-X
Lege-gordailua: BI-2099-06

Jainko Gurtzarako eta Sakramentu Araubiderako Kongregazioak gogoratuazo dau, bedeinkapen otoitzetan kurutzearen ezaugarria agertu ez arren, beti egin behar jakela hau Jaungoikoaren errukia eskatuz bedeinkatzen diran pertsoneri edo gauzei.

Horregaitik, abadeak edo diakonoak eskuagaz egindako kurutzearen ezaugarria erabiliko dau otoitzak *bedeinkapena*, *bedeinkatu* edo antzerako berbak jarten dituanean, edo, berba horreek ez dagozanean, bedeinkapen otoitza bera amaitzean.

Bedeinkapenetan beti erabili behar dan kurutzearen ezaugarriari buruzko dekretua.

(AAS 94, 2002, 684)

AURKEZPENA

Bizitzako une batzuetan, fededunek Jaungoikoa pertsonengan, gertakizunetan, lekuetan eta gauzetan egotea eskatuta izaten dabe eta presentzia hori ospatu. Fede eta debozioren frutua da hori.

Kasu batzuetan debozino hau zuzen bideratu behar bada ere, bedeinkapena emoteko eskaerak badau bere balioa, eta hori bultzatu egin behar da eta ahalik eta egokien gauzatu, pertsona eta lekuen egoera kontuan izanik.

1984.eko maiatzaren 31n Jainkoaren Gurtzarako Kongregazioak «Bedeinkapenen Errituala» kaleratu eban latineko argitaraldian eta 1986.eko maiatzaren 7an CELAMeko Liturgia Sailak eta Liturgiako Batzorde Espainiarrak prestatutako testua berretsi eban. Euskeraz, autore partikularrek argitaratutako liburuek azedo «ad casum» egindako itzulpenek az ospatu izan dira bedeinkapen honeek.

Liturgiako Bilbo Elizbarrutiko Batzordeak euskerazko liturgi liburuak gaurkotzen eta argitaratzen dihardu. Oraingo honetan, bedeinkapenen erritual hau aurkezten dogu. Ospakizunetan errez erabilteko moduko formulak jarri nahi izan doguz, egoerarik ohikoenak jasoz eta eskema bera jarriz ospakizun guztietarako. Lagungarritzat argibide praktikoak

ere eskeintzen dira: bedeinkapena zein ministrok emon daiken (bedeinkapen batzuk abadeak baino ezin ditu emon); laiko batek emoterakoan, testu egokiak zeintzuk diran; bedeinkapena eta Mezea alkarregaz zelan lotu.

Lehenengo eta behin, pertsonen zuzendutako bedeinkapenak aurkezten dira; azken baten, bedeinkapen erreguaren bidez Jaungoikoaren presentzia eta grazia gizakientzako eskatzen dalako. Baina zentzuzkoa da, era berean, Jaungoikoaren presentzia eta bedeinkapena gizon eta emakumeok erabilten doguzan leku eta gauzetarako ere eskatzea, sortutako gutzia Jaungoikoaren babes errukitsuaren menpe dagoalako. Bedeinkapena ez da gauza bizigabeentzat aparteko indarrak eskatzeko, Jaungoikoa, bere maitasunez, gizakion munduan azaldu daiten baino.

Bedeinkapen batzuk -esate baterako Eleiza edo aldareena-, ez dagokioz liburu honi. Beste batzuk, nahiz eta Bedeinkapen-liburuan egon, ez doguz argitaraldi honetan sartu. Hemen ez datozen kasuetarako, Liturgia Ordezkaritzara jo.

Argitaraldi hau behin-behinekoa da. Aurrerago, eleizbarrutiarteko Batzordeak behin-betiko errituala eratuko dau eta Vatikanora bialduko, berretsia dagien. Bitartean, gure elizbarrutian, argitaratzen danetik aurrera, honako hau erabiliko da.

Bilbao, 2006.eko apirilaren 25a

Karmelo Etxenagusia
Bilboko Gotzain Laguntzaile

I. ATALA

PERTSONEN BEDEINKAPENA

1. Familiaren bedeinkapena
2. Umeen bedeinkapena
3. Zaharren bedeinkapena
4. Gaixoen bedeinkapena
5. Katekesia emon behar dabenen bedeinkapena
6. Herri beharrezanetarako laguntza-alkarteen bedeinkapena
- 7a. Erromesen bedeinkapena: bidea hasterakoan
- 7b. Erromesen bedeinkapena: etxeratu ondoren
8. Bidaia bat hasi behar dabenen bedeinkapen laburra

1. FAMILIAREN BEDEINKAPENA

Familia bat baino gehiago bedeinkatzen bada, egokitu testua.

Hasierako ohikuneak

Familia baturik, honako hau dino ospatzaileak:

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Aitaren *egiten dabe danak eta erantzuten dabe*: Amen.

Ospatzaileak, abadea edo diakonoa bada, han dagozanak agurtzen ditu,
berba honeek edo Liburu Santutik hartutako beste batzuk esanez:

Jaungoiko gure Aitaren
eta Jesu Kristo gure Jaunaren
grazia eta bakea zuekin.

E/ Eta zure espirituarekin.

Ospatzaileak, laikoa bada, han dagozanak agurtzen ditu, esanez:

Jesu Kristo gure Jaunaren grazia izan bedi zuekin.

E/ Amen.

Ospatzaileak bedeinkapena hartzeko prestatzen ditu han dagozanak, berba egoki batzuk esanez.

Jaungoikoaren Berbea

Ospatzaileak berak edo han dagozanen arteko batek Liburu Santuko atal bat irakurten dau.

1 Ko 12, 12-14

Gorputzak, bat izanik bere, atal asko ditu; baina atal guztiak, asko izanik bere, gorputz bat bakarra osotzen dabe. Gauza bera jazoten da Kristogaz bere. Gu guztiok, judegu nahiz greziar, esklabo nahiz libre, Espiritu bat beraz izan gara bateatuak, gorputz bat bakarra egiteko. Eta guztiok Espiritu bat berean edan dogu.

Gorputza, izan bere, ez dau atal bakarrak osotzen, askok baino.

Jaunak esana.

Baita irakurri daitezkeez: Ef 4, 1-6; Erm 12, 4-16; 1 Ko 12, 31b-13,7.

Egokia izan ezkerro, erantzun-salmoa (127a, esate baterako) edo beste abesti egoki bat esan edo abestu daiteke.

Ospatzaileak, egokitasunez, Bibliako irakurgaia azaltzen dau, ospakizunaren esangurea fedez eurenganatu dagien.

Eskariak

Uneak eskatzen dauanari egokitu behar jakoz eskariak. Eredu bat jarten dogu hemen.

Deitu deiogun Kristo Jaunari. Familia baten bizi gura izan eban eta familia bedeinkapenez bete. Eskatu deiogun babes-tu dagiala familia hau, esanez:

E/ *Zaindu egizu zeure bakean, Jauna, gure familia.*

Maria eta Joserren agindupean bizi izan zinan Horrek, santu egizu familia hau, bere ondoan egonez. E/

Beti zeure Aitaren gurariei begira zuhur egon zinan Horrek, egizu Jaungoikoa aintzatua izan daitela familia guztietan. E/

Zeure senideak maite izan zenduzan eta euren aldetik maitatua izan zinan Horrek, sendotu egizuz familia guztiak maitasunean eta adiskidetasunean. E/

Zeure familia santua otoitzaren, maitasunaren eta Jaun-

goikoaren guraria betetzearen eredu egin zenduan Horrek, santu egizu zeure graziaz familia hau eta bete egizu zeure dohaiez. **E/**

Familiaren batasuna zaintzearen hau esan zenduan: “Jaungoikoak bat egin dauana ez begi gizakiak banandu”. Gorde egizuz senar-emazte honeek (eta euron seme-alabak) zeure maitasunaren ezin hautsizko lokarriaz. **E/**

Ospatzaileak Jaunaren otoitza esateko edo abesteko deia egiten dau, berba honeekin edo antzerakoekin:

Salbatzaileak agindu eta irakatsiari jarraituz, bildur barik esan dagigun:

Gure Aita...

Bedeinkapen otoitza

Jaungoiko guztiz errukitsua,
ezkontza lokarriz osotutako familia
Kristo eta Eleizearen ezaugarri izatea gura izan zenduan.
Isuri egizu,
zeure izenean batuta dagoan familia honen gainera,
zeure bedeinkapen ugaria.
Familiari maitasunez alkarturik bizi diranak jarraitu dagiela
espirituan sutsu eta otoitzean iraunkor,
alkarri lagun egin deioela,

besteen beharrianen ardurea izan dagiela
eta fedearen testigantza emon dagiela.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Amaierea

Ospatzaileak hau esanez amaitzen dau ohikunea:

Nazareteko etxean bizi izan zan Jesus Jauna
egon daitela beti zuen familiagaz,
jagon dagiala gaitz guztitik
eta emon deizuela gogo eta sentiera bakarra.

E/ Amen.

2. UMEEN BEDEINKAPENA

Hasierako ohikuneak

Alkartea baturik, kantu egoki bat abestu daitekè. Amaitutakoan, honako hau dino ospatzaileak:

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Aitaren egiten dabe danak eta erantzuten dabe: Amen.

Gero ospatzaileak, abadea edo diakonoa bada, umeak eta han dagozanak agurtzen ditu, esanez:

Jaungoiko gure Aitaren
eta umeenganako maitasuna erakutsi eban
Jesu Kristo gure Jaunaren
grazia eta bakea zuekin.

E/ Eta zure espirituarekin.

Bibliatik hartutako beste berba batzuk esanez bere egin daike agurra.

Ospatzaileak, laikoa bada, hau esanez agurtzen ditu han dagozanak:

Umeak besarkatzen eta bedeinkatzen ebazan Jauna goratu dagigun eta emon deioguzan Berari eskerrak.

E/ Bedeinkatua Zu, beti, Jauna (edo: Amen).

Ospatzaileak bedeinkapena hartzeko prestatzen ditu han dagozanak, berba batzuk esanez.

Jaungoikoaren Berbea

Ospatzaileak berak edo han dagozanen arteko batek Liburu Santuko atal bat irakurten dau.

Mk 10, 13-16

Aldi haretan, umeak eroan eutsoezan Jesusi, ikutu egizan; ikasleek, ostera, haserre egiten eutseen. Hori ikustean, Jesus haserretu egin zan eta esan eutsen: "Itzi umeei Nigana etorren, ez galerazo, holakoena da-eta Jainkoaren erreinua. Benetan dinotsuet: Jainkoaren erreinua umeak lez hartzen ez dauana ez da ezelan bere bertan sartuko.

Eta, besarkatuz, bedeinkatu egiten zituan umeak, eskuak gainean ezarriz.

Jaunak esana.

Baita irakurri daitezke: Mt 18, 1-5. 10; Mt 19, 13-15; Mt 21, 14-16; Lk 2, 46-52.

Ospatzaileak, egokitasunez eta labur, Bibliako irakurgaia azaltzen dau, ospakizunaren esangurea fedez eurenganatu dagien.

Irakurtearen edo hitzalditxoaren ondoren salmo bat (150a, esate baterako) edo umeek ezagutzen daben kantu bat abesten da.

Eskariak

Bere ustez egokienak diranak aukeratu daikez' edo beste batzuk gehitu daikez ospatzaileak.

Dei egin deiogun Jesus Jaunari. Bere jarraitzaile guztiei umeen tolesbakotasuna eta otzantasuna jarri eutsen zerueta-ko erreinuan sartzeko baldintza lez. Esan deiogun Berari:

E/ Jauna, jakin dagigula Zu umeengan bere onartzen.

Birjinagandik jaiotako Jesus Jauna. Santu egin zenduan ume-aroa. Egizu, ume honeek, zeure eredia jarraituz, hazi daitezala jakituriaz, gorputzez eta graziaz. *E/*

Zuk, Jauna, umeenganako maitasuna erakusten dozu, gurasoen eta Eleizearen bitartez. Egizu, euren arduradunek jardun dagiela, jo eta ke, zaintzaile lan horretan. *E/*

Zu, Jauna, umea zinala, erasotua eta erbesteratua izan zinan. Egizu, gizakien gaizakeriaz edo bizitzaren gogorkeriaz zapalduta dagozan umeek aurkitu dagiela laguntza eta babesa. *E/*

Bedeinkapen otoitza

a) Bateatutako(ar)entzat

Ospatzaileak, abadea edo diakonoa bada, eskuak umeen gainean jarri-rik eta, laikoa bada, eskuak baturik, bedeinkapen otoitza esaten dau:

Jesu Kristo Jauna,
umeak onartzen dituanak

Zeu onartzen zaituala esatera bultzatu zinduzan umeenganako zure maitasunak. Entzun egizuz ume honen (honeen) alde egiten deutsuguzan eskariak.

Bateoaren graziaz aberastu zenduanez (zenduzanez), zaindu egizu (egizuz) zeure betiko babespean, nagusi izatera heltzen danean (diranean), fedea askatasunez autortu dagian (dagien), maitasunean sutsua (sutsuak) izan daiten (daitezan) eta zure erreinuaren itxaropenean sendo iraun dagian (dagien). Errege bizi zara-eta gizaldi eta gizaldietan.

E/ Amen.

b) Oraindino bateatu bako(ar)entzat

Ospatzaileak, abadea edo diakonoa bada, eskuak umeen gainean jarri-rik eta, laikoa bada, eskuak baturik, bedeinkapen otoitza esaten dau:

Umeen bedeinkapenaren iturria eta euren babeslea zaran Jaungoiko Aita ahalguztiduna, senar-emazteak aberastu eta poztu egiten dozuz seme-alaben dohaiaz. Begiratu borondate onez ume honi (honei). Urez eta Espiritu Santuz jaioko danez (diranez) barriro, egizu egin daitela (daitezala) zeure herriaren kide, bateo dohaia hartutakoan

zeure erreinuan parte izan dagian (dagien)
eta gugaz Zeu bedeinkatzen ikasi dagian (dagien) Eleizan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Amaierea

Ospatzaileak, abadea nahiz diakonoa izan, ohikunea amaitzen dau, esanez:

Umeak maite izan zituan Jesus Jaunak
bedeinkatu eta zaindu zagiezala bere maitasunean.

Ospatzaileak, laikoa bada, Aitaren eginda amaitzen dau ohikunea eta hau esanez:

Umeak maite izan zituan Jesus Jaunak
bedeinkatu eta zaindu gagiezala bere maitasunean.

E/ Amen.

3. ZAHARREN BEDEINKAPENA

Hasierako ohikuneak

Familia edo eleiztarren alkartea baturik, hau dino ospatzaileak:

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Aitaren egiten dabe danak eta erantzuten dabe: Amen.

Gero, ospatzaileak, abadea edo diakonoa bada, zaharrak eta bertan dagozanak agurtzen ditu, esanez:

Jesu Kristo gure Jaunaren grazia,
Jainko Aitaren maitasuna,
eta Espiritu Santuaren batasuna izan bedi zuekin

E/ Eta zure espirituarekin.

Liburu Santutik hartutako beste berba batzuekin bere agurtu daike.

Ospatzaileak, laikoa bada, hau esanez agurtzen dau:

Bedeinkatu dagigun Jesus Jauna;
Simeon zaharrak, besoetan hartuz, eroan eban,
baina Jesusen Espirituak zuzentzen eban Simeon.

E/ Bedeinkatua Zu, Jauna, betiren beti (edo: Amen).

Ospatzaileak bedeinkapena hartzeko prestatzen ditu han dagozanak, berba batzuk esanez.

Jaungoikoaren Berbea

Ospatzaileak berak edo han dagozanen arteko batek Liburu Santuko atal bat irakurten dau.

Lk 2, 25-32.36-38

Bazan Jerusalemene Simeon izeneko gizon bat, gizon zintzo eta jainkozalea, Jainkoak Israel noiz kontsolatuko zain egoana. Espiritu Santua beragaz eban, eta aditzera emon eutsion ez zala hilgo Jaunaren Mesias ikusi arte. Eta Espiritu Santuak eraginda tenplura joan zan.

Gurasoek, Legeak agintzen ebana beteteko, Jesus umea tenpluan sartzean, hartu eban Simeonek umea besoetan eta Jainkoa bedeinkatu eban, esanez:

«Orain itzi daikezu, Jauna,
zeure morroi hau bakean hiltzen,
Zeuk berbea emon zenduan ez.
Ikusi dabe nire begiok Zugandiko salbamena,
herri guztien aurrean Zuk aurkeztua:
Nazinoak argitzeko argia
eta zure herri Israelen ospea».

Bazan profetesa bat ere, Ana eritzona, Fanuelen alabea, Aserren jatorrikoa. Urteetan oso aurreratua zan; gaztetan ezkondu eta zazpi urtez senarragaz bizi ondoren, alargun gelditu zan, eta bazituan laurogeita lau urte. Gau eta egun tenpluan egoten zan, barau eta otoitz, Jainkoa zerbitzen. Ordu haretan han egoan, eta Jainkoa goستن eta umeari buruz berba egiten hasi jaken Jerusalemene askatasunaren zain egozan guztiei.

Jaunak esana.

Baita irakurri daitekez: Si 3, 2-8; Si 25, 6-8.13-16; Jkd 4, 8-9; Flp 3, 20-4,1.

Irakurri ondoren, salmo bat esan edo abestu daiteke (125a, esate baterako) edo beste kantu egokiren bat.

Ospatzaileak, labur-labur, Bibliako irakurgaia azaltzen dau, ospakizunaren esangurea fedez eurenganatu dagien.

Eskariak

Bere ustez egokienak diranak aukeratu daitez edo beste batzuk gehitu daitez ospatzaileak.

Dei egin deiogun bere graziaren indarrez edozein adinetan gaztetzen gaituan Jaungoiko Aita ahalguztidunari, eta esan deiogun:

E/ Ez gaginguz bertan behera itzi, Jauna.

Israelgo askatasuna itxaroten eben Simeoni eta Anari, zeure errukiz, zeure Semea erakutsi zeuntsen Jaungoikoa. Egizu zeure zerbitzari honeek ikusi dagiela fedearen begiekin euren Salbatzailea eta alaitu daitezala Espiritu Santuaren gozotasunez. *E/*

Jauna, Zuk, zeure Semearen bitartez, laguntza eta bakea agindu zeuntsen nekatuta eta lanpetuta egozan guztiei. Egizu, zure zerbitzari honeek leporatu dagiela, eroapenez, euren eguneroko kurutzea. *E/*

Jauna, Zu ontasan hutsa zara. Egizu, zeure zerbitzari honeek izan dagiela beti euren etxekoen eta adiskideen poza. *E/*

Jauna, Zuk ez dozu inor izten zeure aita-maitasun barik eta aparteko samurtasuna deutsezu makalenei. Egizu gure gizarteak autortu dagiala nagusien duintasuna, eta begirunea izan deioela euren eskubideei. *E/*

Bedeinkapen otoitza

Ospatzaileak, abadea nahiz diakonoa izan, eskuak zahar guztien gainean batera edo banan-banan jarririk, edo bakoitzaren bekokian kurutzearen ezaugarria eginik edo, laikoa bada, eskuak baturik, bedeinkapen otoitza esaten dau:

Jaungoiko gure Jauna,
zeure eleiztar honeei,
bizitzako gorabeheren erdian,
zeugan itxaroteko eta zeure ontasuna txastatzeko
grazia emon deutsezu.
Bedeinkatu egiten zaitugu
hainbeste urtetan emon deutsezuzan dohai ugariakaitik
eta beti, eten barik, barriztaten dan
gazte espirituaren alaitasunez bizi daitezala,
behar dan besteko gorputzaren indarra izan dagiela
eta euren portaerea danentzat eredu ederra izan daitela
eskatzen deutsugu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Amaiera

Jesu Kristo gure Jauna
izan daitela beti zuen ondoan,
zuek babesteko.

E/ Amen.

Bera joan daitela zuen aurretik
zuek gidatzeko
eta zuen atzetik zuek jagoteko.

E/ Amen.

Berak begi onez ikusi, gorde
eta bedeinkatu zagiezala.

E/ Amen.

Eta zuok, hemen zagozen guztiok,
bedeinkatu zagiezala Jainko ahalguztidunak:
Aitak eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.

E/ Amen.

Ospatzaileak, laikoa bada, Jaunaren bedeinkapena eskatzen dau zaha-
rrentzat eta bertan dagozan guztientzat, Aitaren eginaz eta hau esanez:

Jaunak bedeinkatu gagizala,
gaitz guztietatik zaindu gagizala
eta eroan gagizala betiko bizitzara.

E/ Amen.

Bedeinkapen hau Meza barruan egiten bada, bedeinkapen otoitza herri
otoitzaren azkenean esaten da, eta Mezearen amaieran emoten da goian
jarten dan bedeinkapena.

4. GAIXOEN BEDEINKAPENA

Hasierako ohikuneak

Eleiztarren alkartea baturik, ospatzaileak hau dino:

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Aitaren egiten dabe danak eta erantzuten dabe: Amen.

Gero ospatzaileak, abadea edo diakonoa bada, gaixoak eta han dagoza-
nak agurtzen ditu, esanez:

Jaunaren bakea izan bedi beti zuekin.

E/ Eta zure espirituarekin.

Bibliatik hartutako beste berba batzuekin ere egin daike bere agurra.

Ospatzaileak, laikoa bada, honan egiten dau agurra:

Bedeinkatu dagigun
on egiten eta danak osatzen igaro zan Jauna.

E/ Bedeinkatua Zu, beti, Jauna (edo: Amen).

Ospatzaileak bedeinkapena hartzeko prestatzen ditu han dagozanak, berba batzuk esanez.

Jaungoikoaren Berbea

Ospatzaileak berak edo han dagozanen arteko batek Liburu Santuko atal bat irakurten dau.

Mt 11, 28-30

«Zatoze Nigana nekatu eta zamapetu guztiok, eta Neuk arinduko zaituet. Hartu egizue nire buztarria eta ikasi Nigandik, gozoa eta bihotz-apala naz eta, eta aurkituko dozue zeuen arimentzako atsedena. Nire buztarria leuna da-eta, eta nire zama arina».

Jaunak esana.

Baita irakurri daitezke: 2 Ko 1, 3-7; Mk 6, 53-56.

Irakurri ondoren, salmo bat esan edo abestu daiteke (101a, esate baterako) edo beste kantu egokiren bat.

Ospatzaileak, labur-labur, Bibliako irakurgaia azaltzen dau, ospakizunaren esangurea fedez eurenganatu dagien.

Eskariak

Ospatzaileak bere ustez egokienak diranak aukeratu daitez edo beste batzuk gehitu.

Uste onez beterik, eskatu deiogun Jesus Jaunari adoretu dagizala, bere graziaz, gaixorik dagozan gure anai-arrebak, eta otoitz hau zuzendu deiogun:

E/ Zaindu egizuz ontasunez, Jauna, gure gaixoak.

Gure gaixoak osatzeko mundura osagile lez etorri zinan Horrek. *E/*

Gure nekeak jasan eta gure minak leporatu zenduzan Horrek. *E/*

Errukitsu agertzeko, danean gure antza izatea gura izan zenduan Horrek. *E/*

Zeure Ama kurutzeko oinazetan lagun izan zenduan eta guri amatzat emon zeunskun Horrek. *E/*

Gaixoak umeak diranean, eskari honeek esaten dira:

Txikiak aparteko eran maitatzen eta zaintzen dituan Jesus Jaunari eskatu deiogun ume honeen alde, esanez:

E/ Zaindu egizuz euren bideetan.

Umeei dei eginaz, euren antzeko diranentzat dala zeruetako erreinua, esan zenduan. Entzun egizu, errukitsu, euren alde egiten deusugun otoitza. *E/*

Erreinuko misterioak apalei agertzen jakezala, eta ez jakitunei, esan zenduan. Erakutsi egiezuz ume honeei zeure maitasunaren ezaugarriak. E/

Gaixoenganako ardurea eskatu zeuntsen zeure ikasleei. Lagundu egiezu zeure ontasunez gaixorik dagozanak zaintzen dabezanei. E/

Bedeinkapen otoitza

Ospatzaileak, abadea edo diakonoa bada, eskuak gaixo guztien gainean batera edo banan-banan jarririk, edo eskuak baturik, bedeinkapen otoitza esaten dau:

Jaungoiko gure Jauna,
zeure Semea bialdu zenduan mundura,
gure nekeak jasan eta gure minak leporatu egizan.
Gure anai-arreba gaixoen alde eskatzen deusugu.
Emoiezu eroapena eta indarra,
biztu egizu euren itxaropena.
Gainditu dagiela gaixotasuna zeure bedeinkapenez
eta lortu dagiela guztiz osatzea zeure laguntzaz.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Ospatzaileak, laikoa bada, bakoitzaren bekokian kurutzearen ezaugarria eginaz, bedeinkapen otoitza esaten dau:

Zeure eskuetako lanak
arduraz zaintzen dozuzan Jaungoiko gure Jauna,
salbau gagizuz zeure maitasunez.
Adoretu egizu zeure besoaren indarrez
zeure zerbitzari gaixo honen (honeen) gogoa.
Kendu egizuz bere (euren) minak,
osatu egizuz bere (euren) makalaldiak
eta egizu lortu dagiala (dagiela), zorientsu,
Zeugandik itxaroten dauan (daben) gozotasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Gaixoak umeak badira, ospatzaileak, abadea nahiz diakonoa izan, eskuak gaixo guztien gainean batera edo banan-banan jarririk, bedeinkapen otoitza esaten dau:

Jaungoiko gure Jauna,
zeure Seme Jesu Kristok
gozotasunez hartu eta bedeinkatu zituan umeak.
Zabaldtu egizu ontasunez zeure esku laguntzailea
hain gazterik gaixorik dagoan (dagozan)
(I. eta I.) zeure zerbitzari honen (honeen) gainera.
Indarrak bereganaturik (eurenganaturik) eta osasun betez
zeure Eleiza santura eta bere (euren) gurasoengana bihurturik,

bihotz-bihotzez zeuri eskerrak emon ahal deizuzala (deizuezala).

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Ospatzaileak, laikoa bada, eta batez ere bere aitak edo amak gaixorik dagoan umea bedeinkatzen dauanean, bakoitzaren bekokian kurutzearen ezaugarria eginaz, bedeinkapen otoitza esaten dau:

Aita errukitsua eta pozaren Jaungoikoa,
eten barik zaintzen dozuz zeure arduraz zeure izakiak,
eta, zeure ontasunagaitik,
gorputzeko eta gogoko osasuna emoten dozu.
Askatu egizu (egizuz) gaixoalditik **I.** ume hau (**I.** eta **I.** ume honeek)
(Zeuk emon deustazun ume hau)
(Zeuk emon deustazuzan ume honeek),
bizitza guztian
zeure aurrean eta gizakien aurrean,
grazian eta jakiturian haziz,
santutasunez eta zuzentasunez
zeure zerbitzari izan daiten (daitezan)
eta zeure errukiagaitik
eskerrak emon deizuzan (deizuezan).
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Amairea

Ospatzaileak, abadea nahiz diakonoa izan, ohikunea amaitzen dau gaixongana eskuak luzaturik:

Jaungoiko Aitak bedeinkatu zagizala (zagiezala).

E/ Amen.

Jaungoikoaren Semeak osasuna bihurtu deizula (deizuela).

E/ Amen.

Espiritu Santuak argitu zagizala (zagiezala).

E/ Amen.

Eta hemen zagozen guztiok
bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak eta Semeak **✠** eta Espiritu Santuak.

E/ Amen.

Ospatzaileak, laikoa bada, Jaunaren bedeinkapena eskatzen dau gaixontzat eta bertan dagozan guztientzat, Aitarenekin eginaz eta hau esanez:

On egiten eta gaixoak osatzen igaro zan Jesus Jaunak
zaindu deigula osasuna eta bete gagizala bere bedeinkapenez.

E/ Amen.

5. KATEKESIA EMON BEHAR DABENEN BEDEINKAPENA

Abadeak zein diakonoak emon daike bedeinkapen hau.
Ondo legoke Hitzaren ospakizun barruan egitea.

Hasierako ohikuneak

Alkartea baturik, ondo legoke kantu egoki bat abestea. Amaitutakoan,
hau dino ospatzaileak:

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Danak egiten dabe Aitaren eta erantzuten dabe: Amen.

Gero, ospatzaileak han dagozanak agurtzen ditu, esanez:

Gizon-emakume guztiak salbatzea gura dauan
Jaungoiko Aita errukitsua
izan bedi zuekin.

E/ Eta zure espirituarekin.

Bibliatik hartutako beste berba batzuekin bere agurtu daike.

Ospatzaileak bedeinkapena hartzeko prestatzen ditu han dagozanak
berba batzuk esanez.

Jaungoikoaren Berbea

Ospatzaileak berak edo han dagozanen arteko batek Liburu Santuko atal
bat irakurten dau.

Erm 10, 9-15

Zeure ahoz autortzen badozu Jesus dala Jauna, eta zeure
bihotzean sinesten badozu Jainkoak hilen artetik biztu ebala,
salbatuko zara. Izan bere, bihotzez sinesten dauana zuzentzat
hartzen dau-eta Jainkoak, eta ahoz autortzen dauana salbatu
egiten da. Liburu Santuak dino: Harengan sinesten dauana
salbatu egiten da. Liburu Santuak dino: Harengan sinesten
dauana ez da lotsatan geldituko.

Judegua izan ala ez, ez dago bereizkuntzarik, bat bera da
eta guztien Jauna, dei egiten deutsoen guztientzat eskuzaba-
la. Izan bere, Jaunaren izenari dei egiten deutsona salbatuko
da.

Zelan, ostera, dei egin, Harengan sinesten ez badabe?
Zelan sinestu, haren entzuterik ez badabe? Zelan entzun,
nork iragarri ez bada? Zelan iragarri, horretarako bialdurik
ez bada? Liburu Santuak dinoan lez: Bai ederrak barri onak
ekarten dabezanen oinak.

Jaunak esana

Irakurri ondoren, salmo bat esan edo abestu daiteke (95a, esate batera-
ko) edo beste kantu egokiren bat.

Ospatzaileak, labur-labur, Bibliako irakurgaia azaltzen dau, ospakizunaren esangurea fedez eurenganatu dagien.

Eskariak

Ospatzaileak bere ustez egokienak diranak aukeratu daitez edo beste batzuk gehitu.

Jaungoikoak gizaki guztiak salbau daitezala gura dau. Dei egin deiogun, esanez:

E/ Zeuganatu, Jauna, gizaki guztiak.

Egizu, Aita, mundu guztiak ezagutu dagiala Zeu zareala egiazko Jaungoikoa eta Jesu Kristo zure Semea Zeure bialdua dala. *E/*

Bialdu egizuz langileak zeure solora, zure izena herri guztietan goratua izan daiten. *E/*

Egizu, Apostoluen irakatsiak onartu dagiguzala eta geure fedearen egiari men egin deiogula. *E/*

Gure anai-arreben alde zeure zerbitzura dei egiten deuskuzun Horrek, egizu egiaren mezulariak izan gaitzala. *E/*

Espiritu Santuaren graziak zuzendu dagizala gure bihotzak eta gure ezpanak, beti zure maitasunean eta goralpenean iraun dagigun. *E/*

Bedeinkapen otoitza

Ospatzaileak, eskuak luzaturik, bedeinkapen otoitza esaten dau:

Jauna, indartu egizu zeure aita-bedeinkapenez ☩
katekesia emon gura dabene zeure zerbitzarion erabagia.
Egizu, zeure Berbea hausnartuz
eta Eleizearen irakatsiak sakonduz,
ikasten dabena euren anai-arrebei eskeintzen
ahalegindu daitezala,
eta holan, eurekin batera,
zerbidu zagiezala alaitasunez.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Amaiera

Bere egia eta bere maitasuna
Kristogan agertu dauan Jaungoikoak
egin zagiezala Ebanjelioaren
eta bere maitasunaren lekuko munduan.

E/ Amen.

Eleizeari munduaren amaiera arte
Beragaz egongo zala agindu eutson Jesus Jaunak
sendotu dagizala zuen ekintzak eta zuen berbak.

E/ Amen

Jaunaren Espiritua izan bedi zuen gainean
bere Berbearen arduradunei lagundu ahal deiozuen.

E/ Amen.

Eta hemen zagozen guztiok
bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak eta Semeak ✠ eta Espiritu Santuak.

E/ Amen.

Ondo legoke kantu egokiren batez amaitzea.

Bedeinkapen hau Meza barruan egiten bada, herri otoitzaren azkenean
esaten da bedeinkapen otoitza, eta Mezearen amaieran emoten da goian
jarten dan bedeinkapena.

6. HERRI BEHARRIZANETARAKO LAGUNTZA-ALKARTEEN BEDEINKAPENA

Abadeak edo diakonoak emon daike bedeinkapen hau.

Hasierako ohikuneak

Alkartearen kideak baturik, hau dino ospatzaileak:

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Danak egiten dabe Aitaren eta erantzuten dabe: Amen.

Gero, ospatzaileak bertan dagozanak agurtzen ditu, esanez:

On egiten igaro zan Jauna izan bedi zuekin.

E/ Eta zure espirituarekin.

Bibliatik hartutako beste berba batzuk bere egin daike agurra.

Ospatzaileak bedeinkapena hartzeko prestatzen ditu han dagozanak,
berba batzuk esanez.

Jaungoikoaren Berbea

Ospatzaileak berak edo han dagozanen arteko batek Liburu Santuko atal
bat irakurten dau.

Mt 25, 31-46

«Gizonaren Semea –eta aingeru guztiak Beragaz– aintzaz
beterik etortean, bere errege–aulki ospetsuan jesarriko da, eta
herri guztiak bere aurrean batuko dabez. Berak batzuk bes-
teengandik bereiztuko ditu, artzainak ardiak ahuntzetatik
bereizten dituan lez: ardiak bere eskumaldean ipiniko ditu,
eta ahuntzak ezker aldean.

Orduan, erregeak esango deutse bere eskumakoei: "Zatoze, nire Aitaren bedeinkatuok; hartu egizue munduaren sortzetik zuentzat prestaturik dagoan erreinua. Gose nintzan, eta jaten emon zeunsten; egarri, eta edaten emon; arrotz, eta etxean hartu ninduzuen; biluzik nengoan, eta jantzi egin ninduzuen; gaixorik, eta bisitatu; espetsuean, eta ikustera etorri zineen".

Orduan, zintzoek erantzungo deutsoe: "Jauna, noiz ikusi zinduguzan goserik, eta emon geuntsun jaten, edota egarri, eta edaten emon? Noiz ikusi zinduguzan arrotz, eta etxean hartu, edota biluzik, eta jantzi? Noiz ikusi zinduguzan gaixorik edota espetsuean, eta ikustera joan?"

Eta erregeak erantzungo deutse: "Benetan dinotsuet: nire seniderik txikien honeetako bati egin zeuntsoena neuri egin zeunsten."

Gero, esango deutse ezkerrekoei: "Alde nigandik, madarikatuok, deabruarentzat eta bere lagunentzat prestaturik dagoan betiko sutara. Gose nintzan, eta ez zeunsten jaten emon; egarri, eta ez zeunsten edaten emon; arrotz, eta ez ninduzuen etxean hartu; biluzik, eta ez ninduzuen jantzi; gaixorik eta espetsuean nengoan, eta ez zineen ni ikustera etorri".

Hareek erantzungo deutsoe: "Jauna, noiz ikusi zinduguzan goserik edota egarri, arrotz edota biluzik, gaixorik edota espetsuean, eta guk lagundu ez?"

Harek erantzungo deutse: "Benetan dinotsuet: txikien honeetako bati egin ez zeuntsoena, neuri ez zeunsten egin".

Eta honeek betiko zigorretara joango dira; zintzoak, barriz, betiko bizitzara».

Jaunak esana.

Baita irakurri daitekez: Is 58, lab. 5-11; Mk 2, 1-12; Lk 10, 25-37; Jn 13, 12-17.

Irakurri ondoren, salmo bat esan edo abestu daiteke (33a edo 102a, esate baterako) edo beste kantu egokiren bat.

Ospatzaileak, labur-labur, Bibliako irakurgaia azaltzen dau, ospakizunaren esangurea fedez eurenganatu dagien.

Eskariak

Ospatzaileak bere ustez egokienak diranak aukeratu daitez edo beste batzuk gehitu.

Kristo Jauna, gure nekeak eta minak jasanez, on eginez bizi izan zan, bere lorratzak jarraitu dagiguzan ejenplua emonik. Bere maitasunean oinarriturik, dei egiten deusagu, esanez:

E/ Irakatsi egidazu, Jauna, anai-arrebak zerbitzen.

Gure alde behartsu egin zinan eta zerbitua izatera barik zerbitzera etorri zinan Horrek, emoiguzu anai-arrebak maite izan dagiguzala eta euren beharrizanetan lagundu deiegula.

E/

Gizon-emakume guztiak lagun izan eitezana eta alkar maite izan egien, mundu barria egin zenduan. Lagundu egiguzu Ebanjelioari jagokon biziarea eraikitzen. *E/*

Gizaki guztiak zeure ondasunen jabe izatea gura dozu. Egizu, sortu daitezala bihotz handiko gizon-emakumeak, maitasunak eraginda, txiroei eta behartsuei laguntzen jardun dagien.

E/

Bedeinkapen otoitza

Ospatzaileak, eskuak luzaturik, bedeinkapen otoitza esaten dau:

Bedeinkatua Zu, Jauna, Jaungoiko errukitsua, maitasun eredu bikaina emon deuskuzu zeure Semeagan. Beraren bidez emon deuskuzu, bizi-bizi, maitasunaren agindua.

Bete egizuz zeure bedeinkapenez ✠ seme-alaba honeek; euren anai-arrebei laguntzea aukeratu dabe bihotz zabaltasunez.

Egizu, premina larrietan, zerbidu zagiezala zintzo-zintzo, lagun hurkoei lagunduz. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Amaierea

Maitasunari buruzkoa dan kantu egoki bat abesten da.

7a. ERROMESEN BEDEINKAPENA: BIDEA HASTERAKOAN

Bedeinkapen hau abadeak edo diakonoak emon daike.

Hasierako ohikuneak

Erromesen taldea baturik, zein dan egokien, 121. salmoa edo beste kantu egoki bat abesten da. Amaitutakoan, hau dino ospatzaileak:

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Danak egiten dabe Aitaren eta erantzuten dabe: Amen.

Gero, ospatzaileak bertan dagozanak agurtzen ditu, esanez:

Gure salbamena eta gure atsedena dan Jaungoikoa izan bedi zuekin.

E/ Eta zure espirituarekin

Bibliatik hartutako beste berba batzukin bere egin daike agurra.

Ospatzaileak bedeinkapena hartzeko prestatzen ditu han dagozanak, berba batzuk esanez.

Jaungoikoaren Berbea

Ospatzaileak berak edo han dagozanen arteko batek Liburu Santuko atal bat irakurten dau.

2 Ko 5, 6b-10

Uste onez beteta gagoz beti, jakinik, gorputz honetan bizi garean bitartean Jaunagandik erbestera gagozala. Sinesmenaren argiak gidatzen gaitu, eta ez ikusten dogunak. Uste onez gagoz, bai, baina nahiago genduke gorputz honetatik erbestera izan Jaunagaz bizitzera joateko.

Edozelan bere, gorputzean nahiz gorputzetik kanpo, Jaunari atsegingarri izaten ahalegintzen gara; guztiok Kristoren auzitegian agertu behar dogu-eta, nork bere ordaina hartzeko, saria ala zigorra, gorputzean bizi gareala egindakoaren arabera.

Jaunak esana.

Baita irakurri daitekez: Is 2, 2-5; Lk 2, 41-51; Lk 24, 13-35; Heb 10, 19-25; 1 P 2, 4-12.

Irakurri ondoren, salmo bat esan edo abestu daiteke (23a edo 26a, esate baterako) edo beste kantu egokiren bat.

Ospatzaileak, labur-labur, Bibliako irakurra azaltzen dau, ospakizunaren esangurea fedez eurenganatu dagien.

Eskariak

Ospatzaileak bere ustez egokienak diranak aukeratu daitez edo beste batzuk gehitu

Uste on osoz beterik, dei egin deiogun gure giza erromesaldiaren helburua dan Jaungoikoari, esanez:

E/ Lagun egiguzu, Jauna, gure bidean.

Antzina basamortuan zehar joian herriarentzat gidari eta bide izan zinan Aita. Zaindu gagoz bide hau egiten hasi behar dogun honetan eta egizu, arrisku guztiak gainditurik, zoriontsu bihurtu gaitzala geure etxera. *E/*

Zeure Seme bakarra emon zeunskun Zeugana heltzeko bide lez. Egizu, jarraitu dagigula bide hori zintzotasunez eta iraupenez. *E/*

Maria emon zeunskun Zuk Kristori jarraitzeko eredu eta jarraibide. Egizu, bera gure begien aurrean izanik, ibili gaitzala beti bizi barriari jagokonez. *E/*

Zuk, Espiritu Santuaren bidez, zuzentzen dozu Zeuganantz mundu honetan erromes doan Eleizea. Egizu, danen gainetik Zeu bilatuz, zeure aginduen bidetik ibili gaitzala. *E/*

Zuzentasun eta bake bideetatik dei egiten deuskuzu Zeuganantz. Egizu, egunen baten ikusi ahal zaiguzala zeure Erreinuan. *E/*

Bedeinkapen otoitza

Ospatzaileak, eskuak luzaturik, bedeinkapen otoitza esaten dau:

Jaungoiko Aita,

zeure errukia agertzen deutsezu maite zaituenei eta behin bere ez zagoz bilatzen zaituenengandik urrun.

Lagundu egiezu erromesaldi hau
egiten hasten diran zeure seme-alabei
eta zuzendu egizu euren bidea
zeure borondateari jagokonez.
Egunez estaldu dagizala zure babes-kerizpeak
eta gauzez argitu dagizala zure graziaren argiak,
Zeuk lagundurik, euren helburura
zoriontsu heldu daitezán.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Amaierea

Ospatzaileak ohikunea amaitzen dau, esanez:

Jaunak zuzendu dagiala gure bidea
eta onurakor eta mesedegarri egin dagiala.

E/ Amen.

Jaunak babestu gagizala
eta gure bidelagun izan daitela.

E/ Amen.

Orain uste onez hasten dogun bidea

pozez beterik amaitu dagigula,
Jaungoikoaren laguntzaz.

E/ Amen.

Kantu egoki bat abestu daiteke.

7b. ERROMESEN BEDEINKAPENA: ETXERATU ONDOREN

Abadeak edo diakonoak emon daike bedeinkapen hau.

Hasierako ohikuneak

Erromesen taldea baturik, egoerea kontutan izanik, kantu egoki bat
abesten da. Abestia amaitutakoan, ospatzaileak esaten dau:

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Danak egiten dabe Aitaren eta erantzuten dabe: Amen.

Gero ospatzaileak bertan dagozanak agurtzen ditu, esanez:

Gure itxaropena eta gure atsedena dan Jaungoikoak
bete zagiezala bakez eta atseginez Espiritu Santuagan.

E/ Amen.

Bibliatik hartutako beste berba batzuekin bere egin daike agurra.

Ospatzaileak bedeinkapena hartzeko prestatzen ditu han dagozanak, berba batzuk esanez.

Jaungoikoaren Berbea

Ospatzaileak berak edo han dagozanen arteko batek Liburu Santuko atal bat irakurten dau.

1 Kro 29, 9-18

Herri guztia poztu zan bat-bateko emoitza hareekaitik, bihotz-bihotzez emon zituen Jaunarentzat eta; Dabid erregeak ere poz handia hartu eban.

Orduan, batzar osoaren aurrean Jauna goratu eban Dabidek, esanez: "Bedeinkatua zu, Jauna, gure aita Israelen Jainkoa, betiren beti! Zeureak dozuz, Jauna, handitasuna, indarra, ohorea, ospea eta gorespena. Zeureak dozuz zerulurretan diran guztiak. Zeureak, Jauna, erregetza eta gauza guztien nagusitasuna.

Zugandik datoz aberastasuna eta aintza; zeure menpe dozu dana. Zeure esku dozuz indarra eta ahalmena; zeure esku, edonor handi eta indartsu egitea. Horregaitik, oi gure Jainko, eskerrak emoten deusuguz eta zure izen ospetsua goratzen dogu.

Izan bere, nor naz ni eta nor nire herria Zuri borondatezko emoitza honeek egin ahal izateko? Zeugandik dator

dana eta zeure eskutik hartutakoa emon deusugu. Zure aurrean kanpotar eta etorkin besterik ez gara, gure aurretikoak izan ziran lez. Gure bizitza lur gainean kerizpea lez doa, itxaropen barik. Jauna, gure Jainkoa, Zuri tenplua eraikitzeko prestatu deusuguzan gauza guzti honeek zeure eskutik jatorkez, zeurea dozu dana eta.

Badakit, ene Jainko, gure asmorik gordeenak aztertzen dozuzana eta zuzentasuna maite dozuna; asmo zuzenez eskeini deusudaz bat-batean gauza guzti honeek, eta pozez dihardut ikusten hemen dagoan herri guztiak ere eskuzabal egiten deusuzala bere emoitzak. Jauna, gure aurretiko Abrahamen, Isaaken eta Israelen Jainkoa, egizu gure herriak iraun dagiala beti era horretako jarreran, eta erakarri Zeugana herri honen bihotza.

Jaunak esana

Baita irakurri daitekez: Lk 24, 28-35; Jn 5, 1-15; Jn 9, 1-38; Eg 8, 26-35; Heb 13, 12-21.

Irakurri ondoren, salmo bat esan edo abestu daiteke (121a edo 83a, esate baterako) edo beste kantu egokiren bat.

Ospatzaileak, labur-labur, Bibliako irakurgaia azaltzen dau, ospakizunaren esangurea fedez eurenaganatu dagien.

Eskariak

Ospatzaileak bere ustez egokienak diranak aukeratu daitez edo beste batzuk gehitu.

Dei egin deiogun zeru-lurren Jaunari. Jainkotasunaren bete
Kristoren giza izatean bizi izatea gura izan dau Berak. Esan
deiogun:

E/ Jauna, bedeinkatu zeure herria.

Antzina basamortuan zehar joian herriarentzat gidari eta
bide izan zinan Aita. Gure erromesaldia amaitueran, gogotsu
eta borondate osoz, bat egin dagigula Zugaz. *E/*

Hemen ez dogula behin betiko uririk agertu deuskuzu.
Egizu fedez ibili gaitezala gerokoaren bila. *E/*

Bizitzaren bideetan Zu gugaz egotearen ezaugarriak bereiz-
tu behar dirala irakasten deuskuzu. Egizu, guk bere izan dagi-
gula zure Semea bidelagun eta ogia zatitzean mahaikide. *E/*

Zuzentasun eta bake bideetatik dei egiten deuskuzu
Zeugana. Egizu, egunen baten ikusi zaiguzala zeure
Erreinuan. *E/*

Bedeinkapen otoitza

Ospatzaileak, eskuak luzaturik, bedeinkapen otoitza esaten dau:

Bedeinkatua Zu, Jaungoikoa,
Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

Zeuk aukeratu zenduan nazino guztien artetik

herri sagaratua, ekintza onez hornidua.
Zeure graziaz ikutu dozuz
anai-arreba honeen bihotzak,
fedea handiagoaz Zugaz bat egin dagien
eta bihotz zabaltasun gehiagoz zerbidu zagiezan.
Bete egizuz zeure bedeinkapenez,
euren etxera pozik bihurtutakoan,
berbaz iragarri dagiezan
eta euren ekintzaz danei adierazo deiezan
Zuk egindako harrigarriak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Amaierea

Ospatzaileak ohikunea amaitzen dau, esanez:

Zuekin erromesaldi honetan izan dan
zeru-lurren Jaunak
zaindu zagiezala beti.

E/ Amen.

Sakabanatutako seme-alabak
Kristo Jesusengan batu dituan Jaungoikoak
emon deizuela Beragan
pentsaera eta sentiera bera izatea.

E/ Amen

Bere maitasun asmoak beteteko
gura izatea eta ekinean jardutea
zuengan bultzatzen dituan Jaungoikoak
bedeinkatu zagiezala
eta indartu dagiala zuen debozinoa.

E/ Amen.

Egoerea kontuan izanik, kantu egoki bat abestu daiteke.

8.BIDAIA HASI BEHAR DABENEN BEDEINKAPEN LABURRA

Buru egiten dauanak esaten dau:

Jauna da gure laguntza.

E/ Zeru-lurak egin ebazana.

Bertan dagozanen arteko batek edo buru egiten dauanak, Bibliako zati bat irakurten dau, esate baterako:

Tb 4, 19a: Goratu Jauna, zeure Jainkoa, une guztietan eta eskatu egiozu zuzendu dagizala zure bideak eta lagundu deizula zure asmo eta ibilerak ondo burutzen.

Jn 14, 6: Jesusek dino: "Neu naz bidea, egia eta bizia. Ezin da inor Aitagana joan nire bidez izan ezik".

Gero, buru egiten dauanak bedeinkapen otoitza esaten dau:

Jaun ahalguztidun eta betikoa,
bere herritik eta bere aitaren etxetik
urten eragin zeuntson Abrahami.
Bizirik eta onik zaindu zenduan
bere erromesaldiko bideetatik zehar.
Babestu gagizuz gu zeure zerbitzariok bere.
Izan zaitez, Jauna, guztiontzat,
euskarri bidaiaren prestakuntzan
eta lagun eragozpenetan,
Zeuk zuzendurik,
gure bidaiaren amaierara heldu gaitезan
eta geure etxera zoriontsu bihurtu gaitезan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Edo:

Jaungoikoak bedeinkatu gagizala
era guztitako zeru bedeinkapenez
eta zuzendu dagizala zorionez gure bideak,
bizitza honetako gorabehera guztien artean,

beti somatu dagigun bere Jainko babesa.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

II. ATALA

ERAIKINEN ETA LAN-TRESNEN BEDEINKAPENA

1. Etxe barriaren bedeinkapena
2. Ikastetxearen bedeinkapena
3. Liburutegi barriaren bedeinkapena
4. Eritetxe edo Osasunetxearen bedeinkapena
5. Laborategi, Lantegi edo Dendaren bedeinkapena
6. Kiroldegiaren bedeinkapena
7. Bidaiekin zerikusia dauken gauzen (zubiak, errepedeak, ibilgailuak, txalupak...) bedeinkapena
8. Lan-tresnen bedeinkapena

1. ETXE BARRIAREN BEDEINKAPENA

Hasierako ohikuneak

Etxeakoak euren senideekin eta adiskideekin baturik, ospatzaileak hauxe dino:

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Aitaren egiten dabe danak eta erantzuten dabe: Amen.

Ospatzaileak, abadea edo diakonoa bada, han dagozanak agurtzen ditu, hau esanez:

Jaunaren bakea etxe honentzat eta hemen zagozen guztiontzat.

Bibliatik hartutako beste berba batzuen bidez bere agurtu daikez.

Ospatzaileak, laikoa bada, holan egiten dau agurra:

Alkarregaz goratzen dogun Jaungoikoak
emon deigula, bere Espirituaren bidez,

gure artean bat eginda egotea,
Jesukristok hahi dauan lez.

E/ Amen.

Ospatzaileak bedeinkapena hartzeko prestatzen ditu han dagozanak, berba egoki batzuk esanez.

Jaungoikoaren Berbea

Ospatzaileak berak edo han dagozanen arteko batek Liburu Santuko atal bat irakurten dau.

Lk 10, 5-9

“Edozein etxetan sartzen zareela, esan egizue lehenengo: “Bakea etxe honetakoei”. Han bakezalerik badago, haren gainean kokatuko da zuen bakea; bestela, hutsean geldituko da zuen agurra. Gelditu zaitez etxe berean, eta jan eta edan daukenetik, langileari bere saria zor jako eta. Ez ibili etxerik etxe.

Herriren batean sartu eta ondo hartzen bazaitue, jan jar-ten deusuenetik, osatu bertako gaixoak eta esan egiezue: Gainean dozue Jaungoikoaren erregetza”.

Jaunak esana.

Baita irakurri daitezkeez: Has 18, 1-10a; Mk 1, 29-30; Lk 10, 38-42; Lk 19, 1-9; Lk 24, 28-32.

Irakurri ondoren, salmo bat esan edo abestu daiteke (126a, esate baterako) edo beste kantu egokiren bat.

Ospatzaileak, labur-labur, Bibliako irakurgaia azaltzen dau, ospakizunaren esangurea fedez eurenganatu dagien.

Eskariak

Ospatzaileak bere ustez egokienak diranak aukeratu daitez edo beste batzuk gehitu.

Esker onez eta pozik dei egin deiogun zeru-lurren Jauna dan gizon egindako eta gure artean bizi izandako Jaungoikoaren Semeari, eta esan deiogun:

E/ *Geratu zaitez gugaz, Jauna.*

Maria eta Josegaz etxeko bizitza santu egin zenduan Jesu Kristo Jauna. Bizi izan zaitez gugaz etxe honetan, etxelagun autortu eta nagusiztat ohoratu zagiguzan. E/

Zure laguntzaz eraikin guztia eginda geratzen da eta eleiza sagaratu izateraino heltzen. Egizu, etxe honetako bizilagunak Jaungoikoaren etxe izan daitezala, Espirituaren indarrez.

E/

Zure jarraitzaileei euren etxea haitz sendoaren gainean erakitzen irakatsi zeuntsen. Egizu, familia honen bizitza zeure berban oinarritu daitela sendo eta, edozein zatiketa baztertuta, zerbidu zagizala bihotz zabalez eta bihotz-bihotzez. E/

Etxe bakoa izanik, txirotasunaren poztasunez onartu zenduan adiskideen eskeintza. Egizu, bizilekua bilatzen dabene guztiek etxe duina aurkitu dagiela, gure laguntzaz. E/

Bedeinkapen otoitza

Ospatzaileak, abadea zein diakonoa izan, eskuak luzaturik edo eskuak baturik, bedeinkapen otoitza esaten dau:

Lagundu, Jauna, etxebizitza hau zabaltzean zure bedeinkapena apalik eskatzen dabene zeure zerbitzari honeei.

Bertan bizi izango diranean, somatu zagiezala euren artean eurak babesten, urten dagienean izan dagiela zure laguntza, bihurtu daitezanean nabaritu dagiela bizilagun zaituela, zure Aitaren etxean eurentzat gertauta daukazun tokira zoriontsu heldu daitezane arte.

Errege bizi zara-eta gizaldi eta gizaldietan. Amen.

E/ Amen.

Edo, abadetxea danean.

Jaungoiko gure Jauna, abadetxe hau zabaltzeko pozik batu garean honetan, zeure eskutik hartutako ondasunakaitik eskerrak emoten deusuguz pozez beterik. Bedeinkatua izan zaitez, Jauna; Zuk Lebiren leinua aukeratu zenduan Itun zaharreko bitartekari zerbitzurako eta zeure herriaren erlijino-zerbitzua emon zeuntson ondare lez; Zeuk agertu zenduan abadetzaren betetasuna Birjina Mariagandik Alkartasun barriaren opariko haragia eta odola hartu zituan zure Seme Jesu Kristogan; Zeuk deitu deusazu herri barriari Kristoren abadetzan parte hartzera, zeure eleiztar guztiei Espirituaren indarra isuriaz. Hartu egizuz gure poza eta gure atsegina, hartu egizuz gure goralpena eta gure esker ona, eta jarraitu egizu zeure grazia eta zeure bedeinkapena gure gainera isurtzen. Bedeinkatu egizu ✠ gaur zabaltzen dogun abadetxe hau; bedeinkatu egizuz berau jasotea ahalbideratu dabenek eta bertan biziko diranak; izan daitela eurentzat

zure erreinuaren alde egindako
 lan luze eta sortzailearen ondorengo
 merezidutako atsedena,
 ministeritzako grazian lagun diranen arteko
 anaitasun tokia,
 misiolari oroimen eta bialtze zentroa,
 behartsuenen zerbitzurako lekua,
 inork ez ezerk aldendu ezin daikegun
 behin betiko topaketarako
 gertauko gaituan Jaungoikoaganako hurreratzea
 eta bere maitasunaren geroago eta gehiagoko esperientzia;
 Mariak, Abade bakarraren Amak
 zaindu eta lagun egin dagiela azkeneraino.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Edo, gizarte etxe katolikoa danean:

Jaungoiko ahalguztidun eta betikoa,
 beharrezkoa da egun honetan poztutea
 eta Zuri eskerrak emotea toki honetan,
 guganako maitasuna beti agertzen dozulako.
 Bakartadea gainditzeko
 eta gizartean bizi izateko sortu ginduzuzan;
 Israelgo etxea aukeratu zenduan
 zeure errukia betiren beti abestuko eban

herrien arteko batasunaren legamina izateko.
 Zeure Semea bialdu zenduan
 bere etxea gure artean jarri egian
 eta gu anai-arreba izateko zeure lana aurrera eroan egian,
 hori beteteko Eleizea sortuaz
 eta maitasunaren agindua eta Espiritu Santua emonaz.
 Gizon emakumeen ongilea,
 bedeinkatu egizu ✠ barriren barri edegiten dogun etxe hau;
 izan daitela bertara joten daben guztientzat
 zabalik dagoan etxea
 eta Eleizeak lurrean dauan misinoaren ezaugarri iraunkorra;
 izan daitela mundua sagartzeko (eskeintzeko)
 laikoek daben bokazinoaren lagungarri eta garapen.
 Isuri egizu zeure Espiritua bazkide guztien gainera,
 etika norberekoia gainditurik,
 jo dagiela besteekin batera euren helburua lortzera;
 umeek eta gazteek aurkitu dagiela hemen,
 Jaungoikoaren borondatea betetean
 eta besteenganako maitasunean,
 Jesusen antzeko izateko laguntza;
 danen ahalegina autortua izan daitela
 eta somatu dagiela euren burua askeago
 gizakiaren duintasunaren eta norakoaren zerbitzurako,
 euren bizimodua hobetuz.
 Holan, Jaungoikoak
 gure uri gainera
 bere grazia isurtzen jarraituko dau
 eta eten barik sortuko da eskerrak emotea,

erreinuaren amaierea heldu arte.
Jesu Kristo gure Jaunaren bidez.

E/ Amen.

Edo, adinekoen egoitza danean:

Jainko gure Jauna,
Zuk izaki guztiak zeru beraren azpian bat eginda,
eguzki berak argituta bizi daitezala gura dozu,
eta zeure Seme Jesu Kristoren bitartez
agertu deuskuzu giza familiaren Aitatzat
autortua izan gura dozula.
Egoitza hau edegiteko pozik alkartu gareanean,
alaitasunez eskerrak emoten deutsuguz
zure laguntzakaitik.
Bizitzako jazoera guztietan
Zu gure artean zagozala ezagutzera
bultzatzen gaitu geure fedeak;
horregaitik jasoten dogu Zuganuntz
geure esker oneko espiritua,
zure bedeinkapenean parte hartzen dogulako.
Bedeinkatzen zaitugu, Aita,
gaur adinekoei agirian egoitza hau eskeini daikeegulako.
Bedeinkatzen zaitugu, Aita,
egoitza honetan,
danen garapenerako eta ongizaterako
izango diran hartu-emon biziak,

adiskidetsuak eta anaikorrak
eraiki ahal izango diralako.
Goralpenaz batera, geure eskaria bere egiten dogu:
Isuri egizu gugana,
gure ardura eta lanen gainera,
zeure graziaren bedeinkapen ✠ ugaria,
zeure borondateari jagokonez bizirik,
egunen baten, zeure seme-alaba guztiekin,
zeruko zeure etxean bizi izateko duin izan gaitzean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Bedeinkapen otoitzaren ondoren, ospatzaileak ur bedeinkatuz txipris-
tintzen ditu han dagozanak eta etxea, hau esanez:

Ur honek gogoratu deigula
bere heriotzaz eta biztueraz
askatu ginduzan Kristogan
hartu genduan Bateoa.

E/ Amen.

Amaierea

Ospatzaileak ohikunea amaitzen dau, esanez:

Kristoren bakeak zuzendu begi gure bihotza,
Kristoren berbea bizi bedi gure artean aberastasun betean,

berbaz edo ekintzaz egiten dogun guztia
Jaunaren izenean izan daiten.

E/ Amen

Egoki legoke abesti apropos bategaz amaitzea.

2. IKASTETXEAREN BEDEINKAPENA

Abadeak edo diakonoak emon daike bedeinkapen hau.

Hasierako ohikuneak

Alkartea leku egokian baturik, 66. (67.) salmoa edo beste kantua egoki-
ren bat abestu daiteke. Hori amaiturik, ospatzaileak dino:

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Danak egiten dabe Aitaren eta erantzuten dabe: Amen.

Gero, abadeak edo diakonoak bertan dagozanak agurtzen ditu, esanez:

Jakituriaren iturri dan Jainkoa,
haragi egindako bere Berbea dan Kristo Jauna,

eta egiaren Espiritua,
izan beitez zuekin.

E/ Eta zure espirituarekin.

Bibliatik hartutako beste berba batzuk bere agurtu daike.

Ospatzaileak bedeinkapena hartzeko prestatzen ditu han dagozanak,
berba batzuk esanez.

Jaungoikoaren Berbea

Ospatzaileak berak edo han dagozanen arteko batek Liburu Santuko atal
bat irakurten dau.

Mt 5, 1b. 2. 13-16

Jesarri zan Jesus eta ikasleak hurreratu jakozan. Orduan,
honan hasi jaken irakasten: «Zuek zaree lurraren gatza. Baina
gatza gezatzen bada, zelan gazitu barrero? Ez dau gehiago
ezertarako balio, kanpora bota eta jendeak zapaltzeko baino.

Zuek zaree munduaren argia. Ezin daiteke ezkutatu
mendi gainean dagoan herria. Kriseilua bere ez da biztuten
lakaripean ipinteko, argimutilaren gainean ipinteko baino,
etxeko guztiei argi egin deien.

Era berean, zuen argiak danen aurrean egin behar dau
argi, zuen egintza onak ikusiz, zeruko zuen Aita goratu
dagien».

Jaunak esana.

Baita irakurri daitezke: Es 1, 1-7; Jkd 7, 7-20; Jkd 9, 1-6. 10-18; Ef 4, 11-24; Mt 11, 25-30.

Irakurri ondoren, salmo bat esan edo abestu daiteke (118a) edo beste kantu egokiren bat.

Ospatzaileak, labur-labur, Bibliako irakurgai azaltzen dau, ospakizunaren esangurea fedez eurenganatu dagien.

Eskariak

Bere ustez egokienak diranak aukeratu daitez ospatzaileak edo beste batzuk gehitu.

Jakituriaren hasierara Jaungoikoaganako begirunea danez, dei egin deiogun Jaungoikoari, egia eta zuzena dana bereizteko eta beteteko gauza egin gagizala eskatuz:

E/ Emoiguzu, Jauna, jakituriaren espiritua

a) Eskolea danean

Jaungoiko gure Jauna, zeure seme-alaba deitzeraino eta izateraino maite izan gaituzu,

- egizu, giza jakituriak ere lagun egin deigula gure kristau bokazinoa argiago ikusten eta bete betean bizi izaten. *E/*

Jakituriak, gorputzez eta graziaz hazten doan Kristo zeure Semeagan gizaki barriaren erdua emon zeunskun Horrek,

- egizu, gure giza jakituria gehituz joan ahala, hazi daitela gure espiritua bere. *E/*

Gizakia bere heldutasunera besteen laguntzaz heldu daitela erabagi dozun Horrek,

- emoiguzu, gure heziketan lan egiten dabene guztiek danen onerako jokatzeko ardurea sortu deiguela beti. *E/*

Giza duintasunaren egile eta babesle zarean Horrek,

- egizu, heziera jator baten onurak heldu daitezala alde guztietako gizon-emakumeengana. *E/*

b) Unibertsitatea danean

Jaungoiko gure Jauna, zeure jakituria beraren partekide egin dozu gizakia,

egizu, gaintitu dagigula ikuspegi mugatua eta bilatu dagigula gizakiaren heziera osoa. *E/*

Gizaki guztiak egiaren lekuko izan eitezan, benetako argia dan zure Semea mundura bialdu zenduan Horrek,

egizu, askatasunez egiaren bila jardunez, lagundu deiogula, gure lorpenekin, gizartearen aurrerakuntzari. *E/*

Gauzak jakituriak eraturik, giza alkartearen batasuna salbamen misteriotik aldentzea gura izan ez dozun Horrek,

- egizu, zientziaren eta pedagogiaren garapenak lagun egin deiola, egiaz, gizon-emakume guztien batasunari. *E/*

Anai-arreben zerbitzuan jarteko Ebanjelioko agindua emon zeunskun Horrek,

- egizu, ahalegindu gaitetzala, eten barik eta borondate bateratuz, giza eskubideak argi eta garbi baieztatzen. E/

Bedeinkapen otoitza

Ospatzaileak, eskuak luzaturik, bedeinkapen otoitza esaten dau:

Jaungoiko Jaun ahalguztiduna,
entzun egizuz gure eskariak eta egizu,
gazteen giza heziketarako,
zientziaren aurrerakuntzarako
eta ezagupide barriak norbereganatzeko dan etxe hau
izan daitela
irakasleek eta ikasleek, egiazko berbaz argiturik,
kristau bizitzaren irakatsiak jarraitu dagiezan
eta bihotz-bihotzez Kristo,
irakasle bakarragaz,
bat egiten ahalegindu daitezana.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

E/ Amen.

Edo

Zure babespean gaur irakaskuntzarako dan
toki hau zabaltzea emoten deuskuzun Jaungoikoa,

emoiguzu, zeure dohaiez,
irakastera nahiz ikastera bertara joten daben guztiek
bilatu dagiela beti egia
eta autortu zagiezala Zeu, egiaren iturri bakarra.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen

Bedeinkapen otoitzaren ondoren, ospatzaileak han dagozanak eta etxea ur
bedeinkatuz txipristintzen ditu, kantu egoki bat abesten dan bitartean.

Amaierea

Ospatzaileak ohikunea amaitzen dau, esanez:

Aitak, ezagupide guztien Jaungoikoak,
argitu gagizala bere bideetan;
Kristo, betiko Jakituriak, ezagutu arazo deigula egia;
eta Espiritu Santuak, jainkozko argiak,
argitu dagizala gure buruak,
zuzena eta ona zer dan ikasi dagigun
eta bete dagigun.

E/ Amen.

Edo:

Ospatzaileak, abadeak edo diakonoak, egoerea zein dan ikusirik, bedein-
kapena hartzeko deia egiten deutso herriari, honako edo antzerako
berba batzukin:

Makurtu zaiteze bedeinkapena hartzeko.

Gero, ospatzaileak han dagozanengana eskuak luzaturik, bedeinkatu egiten ditu, esanez:

Jakituriaren Jaungoikoak eutsi deizuela bere bedeinkapenez.

E/ Amen.

Kristok, Irakasle bakarrak, betiko bizitzako berbak irakatsi deizuezala.

E/ Amen.

Espiritu Santu Babesleak zuzendu zagiezala egia osora arte.

E/ Amen.

Bedeinkatu zagiezala eta lagun egin deizuela beti Aitak eta Semeak ✠ eta Espiritu Santuak.

E/ Amen.

Ondo logoke ohikunea abesti egoki batez amaitzea.

Bedeinkapen hau Meza barruan emoten bada, aukeratu daitekez, beharrianen arabera eta zaindu beharreko arauak zainduz, Espiritu Santuaren aukerazko Mezaren otoitzak eta irakurgaiak.

Ebanjelio ostean, ospatzaileak homilia egiten dau eta hori amaiturik, egoera zein dan ikusirik, Sinisten dot esaten da.

Ohi danez edo aurrean jarritako eraz egin daiteke herri otoitza. Jaunartze ondorengo otoitza amaitutakoan, ospatzaileak, berba honeekin edo antzerakoekin, prestatzen ditu bedeinkapena hartzeko han dagozanak.

Anai-arreba maiteok, eskatu deiogun apaltasunez jakituriaren Jauna dan Jaungoikoari, toki honetara jakituriaren eta bizitza arauen bila datozanek hartu dagiela Espiritu Santuaren barruko irakatsia eta entzun dagiela Kristo Irakasleak bere Ebanjelioan esandakoa.

Danak otoitz egiten dabe, une baten, isilean. Gero, ospatzaileak, besoak luzaturik, hau dino:

Jauna, Jaungoiko ahalguztiduna,
entzun gure eskariak eta egizu,
gazteen giza heziketarako eta jakituriaren aurrerapiderako
eta ezagupide barriak lortzeko dan etxe honetan,
ikasleek eta irakasleek egiazko berbekin jantzirik
kristau bizitzaren irakatsiak jarraitu dagiezala
eta ahalegindu daitezala
Kristo Irakasle bakarragaz, bihotz-bihotzez, bat egiten.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

E/ Amen.

Zeure babespean, gaur,
irakaskuntzarako toki hau bideratzea

emoten deuskuzun Jaungoikoa.
 Emoiguzu, zeure borondatez,
 irakastera edo ikastera bertarutzen diran guztiek
 egia bilatu dagiela beti
 eta autortu zagiezala Zeu haren iturri bakartzat.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen

Ospatzaileak, egoera zein dan ikusirik, bedeinkapena hartzera egiten
 deutso dei herriari, berba honeekin edo antzerakoekin:

Makurtu zaiteze bedeinkapena hartzeko.

Gero, ospatzaileak, han dagozanengana besoak luzaturik, bedeinkatu
 egiten ditu, esanez:

Jakituriaren Jaungoikoak eutsi deizuela bere bedeinkapenez.

E/ Amen.

Kristok, Irakasle bakarrak, betiko bizitzako berbak irakatsi
 deizuezala.

E/ Amen.

Espiritu Santu Babesleak zuzendu zagiezala egia osora arte.

E/ Amen.

Azkenean, han dagozan guztiak bedeinkatzen ditu, hau gehituaz:

Eta hemen zagozen guztiok bere,
 bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak,
 Aitak eta Semeak ✠ eta Espiritu Santuak.

E/ Amen.

Ondo legoke ohikunea abesti egoki batez amaitzea.

3. LIBURUTEGI BARRIAREN BEDEINKAPENA

Abadeak edo diakonoak egin daike.

Hasierako ohikuneak

Alkartea toki egoki baten baturik, kantu apropos bat abestu daiteke.
 Amaitzerakoan, hauxe dino ospatzaileak:

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Aitaren egiten dabe danak eta erantzuten dabe: Amen.

Gero, abadeak edo diakonoak, han dagozanak agurtzen ditu, hau esanez:

Bidea, egia, eta bizia dan Jesus Jauna izan bedi zuekin.

E/ Eta zure espirituarekin.

Bibliatik hartutako beste berba batzukin be agurtu daike.

Ospatzaileak bedeinkapena hartzeko prestatzen ditu han dagozanak, berba batzuk esanez.

Jaungoikoaren Berbea

Ospatzaileak berak edo han dagozanen arteko batek Liburu Santuko atal bat irakurten dau.

Kol 3, 16-17

Bizi bedi oparo zuengan Kristoren berbea; irakatsi eta aholkatu jakituria osoz; kantatu Jainkoari bihotzez eta esker onez salmoak, gorazarreak eta abesti inspiratuak. Edozer esaten nahiz egiten dozuela, egizue dana Jesu Kristo Jaunaren izenean, Beraren bidez Jainko Aitari eskerrak emonez.

Jaunak esana.

Baita irakurri daitekez: Lk 1, 1-4; Lk 4, 16-22a; Jn 21, 24-25.

Irakurri ondoren, salmo bat esan edo abestu daiteke (18a b, esate baterako) edo beste kantu egokiren bat.

Ospatzaileak, labur-labur, Bibliako irakurgaia azaltzen dau, ospakizunaren esangurea fedez eurenganatu dagien.

Eskariak

Ospatzaileak Jaungoikoaren laguntza eskatzen dau, berba honeekin edo antzerakoekin:

Jakintzaren Jaungoiko Jauna, egizu ibili gaitezala zeure egian.

E/ *Lagundu, Jauna.*

Dana ezagutzen dozun Jauna, erakutsi egiguzuz zeure bideak. E/

Zeure jakituriaz mundua egin zenduan Horrek, egizu, eza-gutu dagigula zer dozun zeure gogoko. E/

Emon egiezu zeure jakituria hona irakurtera edo ikastera etorriko diran guztiei. E/

Egizu, hona datozen guztiek egin dagiela aurrera Jaungoikoaren eta gizakien gauzen ezagupidean eta zure maitasunean. E/

Bedeinkapen otoitza

Ospatzaileak, eskuak luzaturik, bedeinkapen otoitza esaten dau:

Handia zara, Jauna, gure Jaungoikoa, sarritan eta era askotara azaldu zaiakez gizon-emakumeei

eta zeure berbea emon deuskuzu zeuk arnastutako Biblian.
 Entzun, orain, gure otoitzak:
 Zientzia eta elertia lantzer
 Liburutegi honetara datoza guztiak
 jarri daitezala
 gizon egindako zure Berbatik
 datorren jakituriaren zerbitzuan,
 eta, dotrina jatorrez behar dan lez jantzirik,
 egin dagiela lan gizatasun handiagoko mundua eraikitzen.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Bedeinkapen otoitzaren ondoren, ospatzaileak ur bedeinkatuaz txipris-
 tintzen ditu han dagozanak eta tokia.

Amaierea

Ospatzaileak ohikunea amaitzen dau, eskuak han dagozanengana luzat-
 turik, esanez:

Aitak, ezagupide guztiaren Jaungoikoak,
 erakutsi deiguzala bere bideak;
 Kristok, betiko Jakituriak,
 ezagutu arazo deigula egia;
 Espiritu Santuak, jainkozko argiak,
 argitu dagizala beti gure adimenak,

zuzena eta ona zer dan
 ikasi eta bete dagigun.

E/ Amen.

Eta Jaungoiko ahalguztidunaren,
 Aitaren eta Semearen ✠,
 eta Espiritu Santuaren bedeinkapena
 jaitsi daitela zuengana
 eta lagun egin deizuela beti.

E/ Amen.

Edo, ospatzaileak, abadea nahiz diakonoa izan, egoerea zein dan ikusirik,
 dei egiten deutso herriari bedeinkapena hartzeko, berba honeekin edo
 antzerakoekin:

Makurtu zaiteze bedeinkapena hartzeko.

Gero, ospatzaileak, han dagozanenganantz besoak luzaturik, bedeinkatu
 egiten ditu, esanez:

Jakituriaren Jaungoikoak eutsi deizuela bere bedeinkapenez.

E/ Amen.

Kristok, Irakasle bakarrak, irakatsi deizuezala betiko bizitza-
 ren berbak.

E/ Amen.

Espiritu Santu Babesleak zuzendu zagiezala egia osora arte.

E/ Amen.

Eta Jaungoiko ahalguztidunaren, Aitaren eta Semearen ✠ eta Espiritu Santuaren bedeinkapena jaitsi daitela zuengana eta lagundu deizuela beti.

E/ Amen.

Ondo legoke ohikunea abesti egoki batez amaitzea.

4. ERITETXE EDO OSASUNETXEAREN BEDEINKAPENA

Abadeak edo diakonoak emon daike bedeinkapen hau.

Hasierako ohikuneak

Alkartea leku egokian baturik, kantu egokiren bat abestu daiteke. Hori amaiturik, ospatzaileak dino:

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Danak egiten dabe Aitaren eta erantzuten dabe: Amen.

Gero, abadeak edo diakonoak bertan dagozanak agurtzen ditu, esanez:

Bere ikasleei gaixoak zaintzeko
eta honeen minak arintzeko
agindu eutsen Jesus Jauna izan bedi zuekin.

E/ Eta zure espirituarekin.

Bibliatik hartutako beste berba batzukin bere agurtu daike.

Ospatzaileak bedeinkapena hartzeko prestatzen ditu han dagozanak,
berba batzuk esanez.

Jaungoikoaren Berbea

Ospatzaileak berak edo han dagozanen arteko batek Liburu Santuko atal bat irakurten dau.

Mt 4, 23-25

Jesus Galilea osoan zehar ebilen, hango sinagogetan irakasten, erreinuaren Barriona iragarten eta herrian gaitz eta gaitxotasun guztiak osatzen. Siria guztian zabaldu zan haren izena. Edozein gaitz eta oinazek jotakoak eroaten eutsoezan: deabrudun, epileptiko nahiz elbarri, eta Harek osatu egiten ebazan. Eta Galilea, Dekapolis, Jerusalem, Judea eta Jordanez bestaldetik etorritako jendetza handiak jarraitzen eutson.

Jaunak esana.

Baita irakurri daitezke: Si 38, 1-14; 2 Ko 1, 3-7; Mt 25, 31-46; Lk 10, 30-37.

Irakurri ondoren, salmo bat esan edo abestu daiteke (101a) edo beste kantu egokiren bat.

Ospatzaileak, labur-labur, Bibliako irakurgaia azaltzen dau, ospakizunaren esangurea fedez eurenganatu dagien.

Eskariak

Bere ustez egokienak diranak aukeratu daitezke ospatzaileak edo beste batzuk gehitu.

Eskatu deiogun, apaltasunez, mundura gaixoak osatzera eta nahigabetuak adoretzera etorri zan Kristo Jaunari:

E/ Bedeinkatu, Jauna, Zugan uste ona dabenak.

Gaixoak osatzera eta bihotz urratuak adoretzera etorri zinan Horrek,

-hartu egizu gaixoak osatzeko dan etxe honen jabetza. *E/*

Erreinuaren Ebanjelioa iragarriaz herriko gaixoak eta minak osatzen zenduzan Horrek,

-erakutsi egizu danoi zeure errukia eta ontasuna. *E/*

Gaixoak ikututa bakarrik osatzen zenduzan Horrek,

-emon egiezu zeure graziaren laguntza, osatzera hona etorriko diran gaixoei. *E/*

Apostoluei gaixoak osatzeko agindu zeuntsen Horrek,
-entzun egizuz gaixoentzat osasuna eskatzen dauan zeure Eleizearen eskariak. *E/*

Zure izenean gaixoak ikusi eta adoretuko ebezanei zeruko saria agindu zeuntsen Horrek,

-errukitsu egin gagizuz geure anai-arreba gaixoengan aurkitu eta maitatu zagiguzan. *E/*

Bedeinkapen otoitza

Ospatzaileak, eskuak luzaturik, bedeinkapen otoitza esaten dau:

Gure Jaungoiko Jauna,

zure Semeak, Espiritu Santuaren indarrez,
gure gaixoak eta minak osatu zituan.

Bere ikasleak Ebanjelioa iragartera bialdu ebazanean,
gaixoak ikusteko eta osatzeko agindua emon eutsen.

Emoiguzu, zeure ontasunagaitik,

hemen bizi diran eta biziko diran guztiek

aurkitu dagiezala gizabidea eta harrera arduratsua
osagileen eta euren laguntzaileen aldetik,

eta hemendik urteeran,

gorputzeko eta arimako osasuna berreskuraturik,
goratu dagiela beti zure errukia.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Edo:

Bedeinkatua izan zaitezala gure Jaungoiko eta Aita,
zure Semearen bitartez.

Bizi barri batez bizi dan herriaren esku
itzi zenduan gaixoak zaintzeko ardurea.

Entzun egizuz gure eskariak:

Toki hau izan daitela, Espiritu Santuaren laguntzaz,
bedeinkapen-etxe eta maitasun-eskola.

Osagileek bete dagiela jakituriaz euren zeregina,
gaixo-zaintzaileek bete dagiela zerbitzu hori arduratsu,
fededunek etorri daitezala hona

anai-arrebengan Kristo bera ikustera,
eta gaixoeak, danen maitasunaz indarturik,
eskuratu dagiela laster osasuna
eta emon deizuezala eskerrak
mesede handi honegatik.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Bedeinkapen otoitzaren ondoren, ospatzaileak ur bedeinkatuaz txipris-
tintzen ditu han dagozanak eta etxea, kantu egoki bat abesten dan bitar-
tean.

Amaiorea

Ospatzaileak ohikunea amaitzen dau, eskuak han dagozanengana luza-
turik, esanez:

Gaixoak zaintzeko

etxe hau zabaldu eta bedeinkatu dagizuen
batu zaituen

bihotz minduen pozgarri

eta makalen indar dan Jaungoikoak

indartu zagiezala bere graziaz,

gaixoei maitasunez eta arduratsu lagunduz,

Kristo Jauna berbera zerbidu dagizuen eurengan.

Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

E/ Amen.

Eta Jaungoiko ahalguztidunaren,

Aitaren eta Semearen ✠ eta Espiritu Santuaren

bedeinkapena jaitsi daitela zuengana

eta lagun egin deizuela beti.

E/ Amen.

Ondo legoke ohikunea abesti egoki batez amaitzea.

5. LABORATEGI, LANTEGI EDO DENDAREN BEDEINKAPENA

Abadeak edo diakonoak emon daike bedeinkapen hau.

Hasierako ohikuneak

Alkartea leku egokian baturik, kantu aproposen bat abestu daiteke. Hori amaiturik, ospatzaileak dino:

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Danak egiten dabe Aitaren eta erantzuten dabe: Amen.

Gero, abadeak edo diakonoak bertan dagozanak agurtzen ditu, esanez:

Gizakiari bere egintzen gaineko agintea
emon eutson Jaungoikoa
izan bedi zuekin.

E/ Eta zure espirituarekin.

Bibliatik hartutako beste berba batzuekin bere agurtu daike.

Ospatzaileak bedeinkapena hartzeko prestatzen ditu han dagozanak,
berba batzuk esanez.

Jaungoikoaren Berbea

Ospatzaileak berak edo han dagozanen arteko batek Liburu Santuko atal
bat irakurten dau.

Has 1, 27-31a

Jainkoak bere irudiko egin eban gizakia, Jainkoaren beraren irudiko egin eban; gizaseme eta emakume egin zituan. Eta bedeinkatu egin zituan Jainkoak eta esan eutsen: «Sortu egizuez umeak eta ugaritu, bete lurra eta izan beraren nagusi; menperatu egizuez itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak eta lurrean dabiltzan piztia guztiak».

Jainkoak esan eban: «Begira, zuei emoten deusuedaz lurraren azalean diran hazidun landare guztiak eta hazidun frutua dakarren zuhaitz guztiak; horreek izango dozuez janari. Abere, zeruko hegazti eta lurrean dabiltzan bizidun guztiak, barriz, bedar hezea emoten deutset janari». Eta holan izan zan. Eta egin eban guztia oso ona zala ikusi eban Jainkoak.

Jaunak esana.

Mk 6, 1-3

Jesus bere herrira joan zan, ikasleak ondoren ebazala. Hurrengo zapatuan, sinagogan irakasten hasi zan. Entzule askok, harriturik, honan inoen: «Nondik dau Honek hori guztia? Zer da emon jakon jakituria hori? Eta honen eskuz jazoten diran mirari horreek? Hau ez al da, bada, arotza, Mariaren semea eta Santiago, Jose, Judas eta Simonen anaia? Eta honen arrebak bere ez ete dira hemen gure artean bizi?» Eta ezin eben sinestu Harengan.

Jaunak esana.

Baita irakurri daitekez: Si 38, 24-34; 1 Ts 3, 6-13; 2 Ts 3, 6-13; Mt 25, 14-29; Lk 16, 9-12.

Irakurri ondoren, salmo bat esan edo abestu daiteke (89a) edo beste kantu egokiren bat.

Ospatzaileak, labur-labur, Bibliako irakurgaia azaltzen dau, ospakizunaren esangurea fedez eurenganatu dagien.

Eskariak

Bere ustez egokienak diranak aukeratu daikez ospatzaileak edo beste batzuk gehitu.

Mundua sortu eta bere ahalmenez gauza harrigarriz bete eban Jaungoiko gure Jaunak santu egin eban bere sorreran gizon-emakumeen lana ere, honeek apaltasunez Sortzailearen ontasunari men eginik egunero, eten barik, krezinoa osotu egien.

Eskatu deiogun, ba:

E/ Zuzendu egizuz, Jauna, gure eskuen lanak.

Bedeinkatua Zu, Jauna. Lanaren legea emon deuskuzu, gure adimenaz eta gure besoekin sortutako gauzak, jo eta ke, landu eta hobetu dagiguzan. *E/*

Bedeinkatua Zu, Jauna. Gure onerako gizon egindako zure Semeak langile apal lez lan egitea gura izan zenduan. *E/*

Bedeinkatua Zu, Jauna. Kristogan gure lanaren buztarria eroangarria eta gure beharraren zama arina izan eitela lortu zenduan. *E/*

Bedeinkatua Zu, Jauna. Zure ardurapean, gure lana ahal dan ondoen egina izan daitela eskatzen deuskuzu. *E/*

Bedeinkatua Zu, Jauna. Gure lana eskeintza eta penitentzia osasungarri lez, anai-arrebentzat poz iturri eta behartsuentzako laguntza lez, onartzen dozu. *E/*

Bedeinkatua Zu, Jauna. Gure lanaren frutua diran ogia eta ardoa Eukaristiaren gorengo duintasunera jaso dozuz. *E/*

Bedeinkapen otoitza

Ospatzaileak, eskuak luzaturik, bedeinkapen otoitza esaten dau:

a) Laborategiaren bedeinkapena

Jaungoikoa,
zure ardurea dala eta,
ontasunez onartzen dozu, zure bedeinkapenen bidez,
gizon emakumeen ekintza guztiak osotzea,
bai gorputzaz bai adimenaz egindakoak.
Toki honetan euren lanekin
gaitzak aztertzen eta erremedioak bilatzèn diharduenek
ahalmena izan dagiela, zure laguntzaz,

aurkikuntzak zehaztasunez egiteko
eta euren estudioen frutua arrakastaz burutzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

b) Lantegiaren bedeinkapena

Jaungoikoa,
zure Semeak, bere eskuen lanaz,
jaso egin eban giza lanaren duintasuna
eta gure lanaz bere erosle-lanean lagun izateko
balioz-gaineko dohaia emon euskun;
emon egiezu zeure jarraitzaileei
Zeugandik itxaroten daben bedeinkapena,
Zeuk egindako gauzak trebetasunez aldaturik,
euren duintasuna autortu dagien
eta giza familiaren beharrianak
euren ahaleginaz arintzeagaitik poztu daitezana,
zure aintzaren goralpenerako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

c) Dendaren bedeinkapena

Jaungoiko Aita guztiz arduratsua,
gizon emakumeen esku itzi zenduzan lurra eta bere frutuak

gizakiak bere lanaz lortu egian
Zuk egindako ondasunak danentzat izatea.
Bedeinkatu egizuz toki hau erabiliko dabenak,
eta egizu, sal-erosketetan zuzentasunez eta maitasunez jokat-
turik,
poztu daitezala
danen onari eta giza alkartearen aurrerapenari
emon deutesen laguntzagaitik.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Bedeinkapen otoitzaren ondoren, ospatzaileak txipristindu egiten ditu
urez han dagozanak eta tokia bera.

Amaierea

Ospatzaileak ohikunea amaitzen dau, eskuak han dagozanengana luza-
turik, esanez:

Benetako anai arreba lez,
danean alkar laguntzeko agindua emon deuskun
ontasunaren Jaungoiko Aitak
zuzendu dagiala bere errukizko begiradea zuengana
eta hona sartuko diran guztiengana.

E/ Amen.

Gero dino:

Hemen zagozen guztiok
bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak,
Aitak eta Semeak ✠ eta Espiritu Santuak.

E/ Amen.

Ondo legoke ohikunea abesti egoki batez amaitzea.

6. KIROLDEGIAREN BEDEINKAPENA

Abadeak nahiz diakonoak emon daike bedeinkapen hau.

Hasierako ohikuneak

Alkartea baturik, kantu egokiren bat abestu daiteke. Hori amaiturik,
ospatzaileak dino:

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Danak egiten dabe Aitaren eta erantzuten dabe: Amen.

Gero, abadeak edo diakonoak bertan dagozanak agurtzen ditu, esanez:

Ondasun guztiak Beragandik jatorkuzan
eta gauza guztien iturri eta jatorri dan
Jaungoikoa izan bedi zuekin.

E/ Eta zure espirituarekin.

Bibliatik hartutako beste berba batzukin bere agurtu daike.

Ospatzaileak bedeinkapena hartzeko prestatzen ditu han dagozanak,
berba batzuk esanez.

Jaungoikoaren Berbea

Ospatzaileak berak edo han dagozanen arteko batek Liburu Santuko atal
bat irakurten dau.

1 Ko 9, 24-27

Ez al dakizue kiroldegian partaide guztiak egiten dabela lasterka, baina saria batek bakarrik jasoten dauala? Beraz, egizue lasterka, irabazteko eran. Atletek diziplina gogorra ezartzen deutsoe euren buruari, eta hori, zimeltzen dan koroia irabazteko; guk, ostera, zimeltzen ez dana irabazteko. Nik bere holan dihardut; ez lasterka itsu-itsuan egiten dauan edota ukabilkadak hutsean jotzen dituan borrokalaria lez; neure gorputza hezi eta menpean jarten dot, ostera, besteei irakatsi ondoren neu baztertua geratu ez naiten.

Jaunak esana.

Baita irakurri daitekez: 1 Ko 3, 16-17; 1 Ko 6, 19-20; Flp 3, 12-15.

Irakurri ondoren, salmó bat esan edo abestu daiteke (99a) edo beste kantu egokiren bat.

Ospatzaileak, labur-labur, Bibliako irakurgaia azaltzen dau ospakizunaren esangurea fedez eurenganatu dagien.

Eskariak

Bere ustez egokienak diranak aukeratu daikez ospatzaileak edo beste batzuk gehitu.

Gure alaitasuna eta gure indarra dan Jesus Jaunak
Beragana deitzen ditu gizon-emakume guztiak,
nekatuta eta leher eginda dagozanak,
bere maitasunean iraunda,
Berak arindu eta gozotu dagizan.
Dei egin deiogun, ba, uste osoz esanez:

E/ Zeuganatu gagizuz, Jauna.

Zeure odolaz erosi zenduzan guztien bizitza zarean Horrek. *E/*

Makalen indarra eta indartsuen saria zarean Horrek. *E/*

On eginez eta danak osatuz igaro zinan Horrek. *E/*

Gu sendotu gagizan Espiritu Jagolea bialtzen deuskuzun Horrek. *E/*

Benetako alaitasunaren iturria Zeuganako eta anai-arreben-ganako maitasunean jarri dozun Horrek. *E/*

Gure poza osoa izan daiten gure eskariak entzuten dozuzan Horrek. *E/*

Zugaz bat eginik, pentsaera eta sentipen bera izan dagiguza-la gura dozun Horrek. *E/*

Bedeinkapen otoitza

Ospatzaileak, eskuak luzaturik, bedeinkapen otoitza esaten dau:

Eten barik goratzen zaitugu, Jauna,
dana era miragarrian jarten dozulako
eta gizon-emakumeen lanak eta eginkizunak
jakituriar zuzentzen dozuzalako,
euren gorputzak nasaitasuna
eta adimenak arintasuna hartu dagien,
atsedenaldia eta jolasaldia emonaz.
Zure laguntza eskatzen dogu, Jauna,
toki honek bere zeregina behar dan lez bete dagian,
espirituaren oporraldia eta jolasa bizkortu dagizan
eta gorputzaren eta adimenaren osasuna sendotu dagian.
Holan, hona datozanek
aberastu dagiela batak bestea anaitasunean,
eta alkarregaz goratu zagiezala alaitasunez.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Bedeinkapen otoitzaren ondoren, ospatzaileak ur bedeinkatuaz txipris-tintzen ditu han dagozanak eta tokia.

Amaierea

Ospatzaileak ohikunea amaitzen dau, eskuak han dagozanengana luzaturik, esanez:

Gure buruak argitzen
eta gure gorputzaren indarrak barritzen dituan
Jaungoikoak zuzendu dagizala gure ekintza guztiak,
egunetik egunera izan dagigun, geroago eta gehiago,
bihotzeko poza
eta bataren eta bestearen gurarien batasuna.

E/ Amen.

Gero hau dino:

Jaungoiko ahalguztidunaren,
Aitaren eta Semearen ✠ eta Espiritu Santuaren
bedeinkapena jaitsi bedi zuengana.

E/ Amen .

Ondo legoke ohikunea abesti egoki batez amaitzea.

7. BIDAIEKIN ZERIKUSIA DAUKEN GAUZEN (ZUBIAK, ERREPIDEAK, IBILGAILUAK, TXALUPAK...) BEDEINKAPENA.

Hasierako ohikuneak

Alkartea baturik, kantu egoki bat abestu daiteke. Amaitutakoan honako hau dino ospatzaileak:

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Aitaren egiten dabe danak eta erantzuten dabe: Amen.

Ospatzaileak, abadea edo diakonoa bada, han dagozanak agurtzen ditu, berba honeek esanez:

Bidea eta egia eta bizia dan Jauna izan bedi zuekin.

E/ Eta zure espirituarekin.

Liburu Santutik hartutako beste berba batzuk bere erabili daitez.

Ospatzaileak, laikoa bada, hau esanez egiten dau agurra:

Bedeinkatu dagigun
bidea eta egia eta bizia dan Jesu Kristo gure Jauna.

E/ Amen.

Ospatzaileak bedeinkapena hartzeko prestatzen ditu han dagozanak, berba batzuk esanez.

Jaungoikoaren Berbea

Ospatzaileak berak edo han dagozanen arteko batek Liburu Santuko atal bat irakurten dau.

Jn 14, 6-7

Jesusek esan eutson Tomasi: «Neu naz bidea, egia eta bizia. Ezin da inor Aitagana joan, nire bidez izan ezik.

Ni benetan ezagutuko baninduzue, nire Aita bere ezagutuko zeunkee. Are gehiago, ezagutzen dozue dagoaneko, eta ikusi bere ikusi dozue».

Jaunak esana.

Eg 17, 22-28

Paulok, Areopago erdian zutik, honan berba egin eban: «Atenastarrok, edozelan bere guztiz erlijinozale zareela ikusten dot. Hortik zehar nenbilela zuen jainko-orotarriei begira, altara bat aurkitu dot idazkun honegaz: "Jainko ezezagunari". Hara bada, zuek ezagutu barik gurtzen dozuena, horixe iragarten deusuet nik. Mundua eta munduan diran gauza guztiak egin dituan Jainkoa zeru-lurren Jauna da eta ez da giza eskuz egindako tenpluetan bizi; ez dabe giza eskuek zerbitzen bere, ez dau eta ezeren beharrizanik, bera danez guztiei bizia, arnasa eta gainerako guztia emoten deusena.

Gizon bakar batengandik sortu zituan Jainkoak nazino guztiak, lur zabal osoan bizi eitezana, bakoitzari bere sasoi eta lurmugak ezarriz. Eta hau guztia, Jainkoa bilatu egien, ea itsumustuka, behintzat, aurkitzen eben; izan bere, ez dago gutako bakoitzagandik urrun, izan bere Harengan bizi gara eta, Harengan mugitzen eta izan bere Harengan gara; hori bera esan dabe zuen olerkari batzuek bere: "Haren jatorrikoak gara".

Jaunak esana.

Baita irakurri daitekez: Is 40, 1a. 3-5; Eg 8, 27-39; Mk 4, 35-41; Lk 3, 3-6; Jn 1, 47-51.

Irakurgai ondoren, salmo bat (24a, esate baterako) esan edo abestu daiteke, edo beste abesti egokiren bat.

Ospatzaileak, labur, Bibliako irakurgaia azaltzen dau, ospakizunaren esangurea fedez eurenganatu dagien.

Eskariak

Bere ustez egokienak diranak aukeratu daitez ospatzaileak edo beste batzuk gehitu.

Batu dagiguzan gure ahotsak behin betiko aberrira eroaten gaituan bidea dan Jesu Kristo gure Jaunari apalik eskatzeko.

E/ Zuzendu egizuz, Jauna, gure pausuak zeure bidetik.

Jesus Jauna, gizon egitean, gizon emakumeekin batera bizi gura izan dozuna,

- emoiguzu, eten barik gure ondoan egonaz, zeure maitasunaren bidetik joan gaitezala. E/

Jesus Jauna, zure Ebanjelioa iragarten eta gaixoak osatzen herririk herri ibili zinana,

- jarraitu egizu gure enparantza eta kaleetatik zehar ibiltzen eta indartu gagizuz zeure errukiaz. E/

Jesus Jauna, itsasoan zehar joiazanean, zure ikasleen artean agerturik, arriskutik atara zenduzana,

- emoiguzu beti zeure laguntza mundu honetako ekaitzen artean. E/

Jesus Jauna, zure ikasleen bide-lagun egin zinana,

- bedeinkatu egizuz gure pausoak eta sutu egizu gure bihotza zeure berbeaz. E/

Jesus Jauna, zeruetara igotean guretzako bidea edegi zenduana,

- babestu egizu lurreko gure erromesaldia, zure Aitak guretzat gertaurik daukan etxera heldu gaitezana arte. E/

Jesus Jauna, zure ama Maria amatzat emon deuskuzuna,

- emoiguzu, bere bitartez, segurtasuna gure joan-etorrietan, egunen baten zu ikustera eta gu alaitzera heldu gaitezana arte. E/

Bedeinkapen otoitza

Ospatzaileak, abadea edo diakonoa bada eskuak luzaturik, edo osterantzean eskuak baturik, bedeinkapen otoitza esaten dau:

Egin dagigun otoitz

Danak egiten dabe otoitz, isilean. Gero, hurrengo otoitzen artean egozia dana esaten da:

a) Zubi, kale, errepide, enparantza, trenbide, kai, aireportuen bedeinkapena

Zure zerbitzuan diharduenengandik hur zagozan

eta Zugan uste on dabenak

aita bihotzez zaintzen dozuzan Jaungoikoa.

Aurreratu zaitez zeure graziaz

eta hurretik jarraitu egiezu

kale (errepide, enparantza, zubi) honetatik igaroko direnei.

Gainditu dagiezala, zeure laguntzaz, bizitzako eragozpen guztiak,

euren gurariak bete daitezala

eta heldu daitezala zoriontsu euren jomugara.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Edo:

Jaungoiko handi eta errukitsua, ez urruntasunak ez denporeak

ezin aldendu leikez Zugandik
Zuk babesten dozuzanak;
lagun egiezu Zugan uste on daben
zeure zerbitzariei, dagozan tokian dagozala;
izan zaitez euren gidari eta lagun euren bidean zehar;
ez dagizala edozein ezbeharrek kaltetu,
ez dagiela izan eragozpenik,
izan dagiezala onura guztiak,
zeure eskuak babesturik,
euren gurari zuzenak zoriontsu lortu dagiezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bidez.

E/ Amen.

b) Edozein ibilgailuren bedeinkapena

Jaungoiko ahalguztiduna, zeru-lurren egilea,
zure amaibako jakiturian,
gizakiaren esku itzi zenduan
gauza handiak eta ederrak egitea.
Ibilgailu hau erabiliko dabenen alde eskatzen deusugu:
kontuz eta segurtasunez joan daitezala euren bidetik,
besteentzat arriskugarria dan arinkeriarik ez dagiela egin,
eta atseginez nahiz beharrizanez ibili,
somatu dagiela beti Kristoren laguntza.
Zugaz batera Errege bizi da eta, gizaldien gizaldietan.

E/ Amen.

c) Txalupearen bedeinkapena

Entzun egizuz, Jauna,
zeure errukia eskatuz zuzentzen deusuguzan eskariak,
txalupa honetatik
haize-bolada kaltegarri guztiak aldendu dagizuzan
eta zeure ahal izatez olatuen zalapartak menperatu dagizuzan;
holan, bertan itsasoratu diranek,
zure laguntzaz babestuta,
euren gurariak bete ahal izango dabez
eta gura daben kaira osasunez helduko dira.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

d) Itsasontziaren bedeinkapena

Mundu honetako ekaitzen erdian,
Eleizea maitasunez zuzentzen dozun Jaungoikoa.
Itsasontzi honek eta bertan joango diranak
ibili daitezala eroso itsasbideetatik zehar,
eta Zeu lemazaintzat eroanez,
gäinditu dagiezala itsasoaren arrisku guztiak,
gozatu dagiela euren joan-etorria
eta heldu daitezala pozik, egunen baten,
betiko segurtasunaren kaira.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Bedeinkapen otoitzaren ondoren, ospatzaileak, ondo badator, ur bedeinkatuaz txipristintzen ditu ibilgailuak eta han dagozanak, kantu egoki bat abesten dan bitartean.

Amaierea

Ospatzaileak, abadea edo diakonoa bada, ohikunea amaitzen dau, esanez:

Jaunak zuzendu zagiezala zuen joan-etorrietan, zeuen bidea bakez egin dagizuen eta betiko bizitzara heldu zaitezten.

E/ Amen.

Gero hauxe dino:

Eta Jaungoiko ahalguztidunaren bedeinkapena etor bedi zuengana.

E/ Amen.

Ospatzaileak, laikoa bada, Jaungoikoaren bedeinkapena eskatuaz eta Aitarekin eginaz, hauxe dino:

Jaunak zuzendu gagizala gure joan-etorrietan, gure bidea bakez egin dagigun eta betiko bizitzara heldu gaitезan.

E/ Amen.

Ondo legoke ohikunea abesti egoki batez amaitzea.

OHIKUNE LABURRA

Hasierako ohikuneak

Alkartea baturik, kantu egoki bat abestu daiteke. Amaitutakoan, honako hau dino ospatzaileak:

Aitarekin eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Aitarekin egiten dabe danak eta erantzuten dabe: Amen.

Ospatzaileak, abadea edo diakonoa bada, han dagozanak agurtzen ditu, berba honeek esanez:

Bidea eta egia eta bizia dan Jauna izan bedi zuekin.

E/ Eta zure espirituarekin.

Liburu Santutik hartutako beste berba batzuk bere erabili daitez.

Ospatzailea laikoa bada, hau esanez egiten dau agurra:

Bedeinkatu dagigun bidea eta egia eta bizia dan Jesu Kristo gure Jauna.

E/ Amen.

Jaungoikoaren Berbea

Ospatzaileak berak edo han dagozanen arteko batek Liburu Santuko atal bat irakurten dau.

Jn 14, 6

Neu naz bidea, egia eta bizia. Ezin da inor Aitagana joan nire bitartez izan ezik.

Jaunak esana.

Mt 22, 37a. 39b-40

Jesusek erantzun: "Maitatu egizu Jauna, zeure Jainkoa, bihotz-bihotzez, gogo osoz eta adimen guttiz". "Maitatu lagun hurkoa zeure burua lez". Agindu bi honeetan oinarritzen dira Liburu Santu guztiak.

Jaunak esana.

Bedeinkapen otoitza

Ospatzaileak, abade edo diakonoa bada eskuak luzaturik, edo osterantzean eskuak baturik, bedeinkapen otoitza esaten dau:

Egin dagigun otoitz

Jaungoiko ahalguztiduna, zero-lurren egilea, zeure amaibako jakiturian

gizakiaren esku itzi zenduan gauza handiak eta ederrak egitea. Ibilgailu hau erabiliko dabenen alde eskatzen deutsugu: kontuz eta segurtasunez joan daitezala euren bidetik, besteentzako arriskugarria dan arinkeriarik ez dagiela egin, eta atseginez nahiz beharrizanez ibili, somatu dagiela beti Kristoren laguntza. Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

E/ Amen.

Edo, txalupearena danean

Entzun egizuz, Jauna, zure errukia eskatuz zuzentzen deutsuguzan eskariak, txalupa honetatik haize-bolada kaltegarri guztiak aldendu dagizuzan eta zeure ahal izatez olatuen zalapartak menperatu dagizuzan; holan, bertan itsasoratu diranek, zure laguntzaz babestuta, euren gurariak bete ahal izango dabez eta gura daben kaira osasunez helduko dira. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Bedeinkapen otoitzaren ondoren, ospatzaileak, ondo badator, ur bedeinkatuaz txipristintzen ditu ibilgailuak eta han dagozanak, kantu egoki bat abesten dan bitartean.

8. LAN-TRESNEN BEDEINKAPENA

Hasierako ohikuneak

Alkartea baturik, kantu egoki bat abestu daiteke. Amaitutakoan honako hau dino ospatzaileak:

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Aitaren egiten dabe danak eta erantzuten dabe: Amen.

Ospatzaileak, abadea edo diakonoa bada, han dagozanak agurtzen ditu, berba honeek esanez:

Kristo, Jaungoikoaren Semea,
bere burua arotzaren semetzat izan ebana
izan bedi zuekin.

E/ Eta zure espirituarekin.

Liburu Santuetatik hartutako beste berba batzuk bere erabili daitez.

Ospatzaileak, laikoa bada, hau esanez egiten dau agurra:

Goratu dagigun
bere burua arotzaren semetzat
hartu gura izan eban Kristo,
Jaungoikoaren Semea.

E/ Amen.

Ospatzaileak bedeinkapena hartzeko prestatzen ditu han dagozanak, berba batzuk esanez.

Jaungoikoaren Berbea

Ospatzaileak berak edo han dagozanen arteko batek Liburu Santuko atal bat irakurten dau.

1 Ts 4, 9.10b-12

Alkarri zor deutzazuen maitasunari buruz, ez dozue nik idatzi beharrik, Jainkoak berak irakasten deutzue-eta alkar maitatzen. Halan bere, senideok, ahalegindu zaiteze, arren, gero eta maitasun handiagoa izaten eta bizitza baketsua erosten, nor bere arazoez arduratuz eta nork bere eskuz lan eginez, agindu deutzuegun lez. Holan, kristau ez diranen errespetua zeuenganatuko dozue, eta ez dozue inoren beharriaz nik izango.

Jaunak esana.

Baita irakurri daitezkeez: Ir 35, 30-36, 1; Jb 28, 1-28; Eg 18, 1-5; Mt 13, 1-9; Lk 5, 3-11.

Irakurgai ondoren, salmo bat (89a, esate baterako) esan edo abestu daiteke, edo beste abesti egokiren bat.

Ospatzaileak, labur, Liburu Santuko irakurgaia azaltzen dau, ospakizunaren esangurea fedez eurenganatu dagien.

Eskariak

Bere ustez egokienak diranak aukeratu edo gehitu daikez ospatzaileak.

Mundua zaintzeko eta lantzeko jarri eban bertan gizakia Jaungoikoak. Honek, gizakiaren adimena bizkortzen jarraitzen dau, bere jakituriaz eta lanaz izadiaren osotasuna lortzen lagundu dagian. Goratu dagigun, esanez:

E/ Bedeinkatua Zu, Jauna, munduaren sortzailea.

Gizon-emakumeei lanera dei egiten deutsezun eta zeuk egindako mundua osotzeko agindua emoten deutsezun Hori. *E/*

Gizon-emakumeei lanaren duintasuna emotean, munduan zeure ekintzaren laguntzaile egiten dozuzan Hori. *E/*

Eten barik ekintza barriak egin dagiezan eta zure izena goratua izan daiten eta zure goralpena mundu guztian entzun daiten, gizon-emakumeak jakituriaz argitzen dozuzan Hori. *E/*

Bere bekokiko izerdiaz lana santu eginez eta duintasunez betez, guretzat aspertu bako lanaren adibide izan eiten, zure Semea mundura bialdu zenduan Hori. *E/*

Zure graziaz ekintza on guztietan gizakiaren argi, indar eta laguntza zarean Hori. *E/*

Bedeinkapen otoitza

Ospatzaileak, abadea edo diakonoa bada eskuak luzaturik, edo bestela eskuak baturik, bedeinkapen otoitza esaten dau:

Egin dagigun otoitz

Danak egiten dabe otoitz, isilean. Gero, hurrengoko otoitzen artean egokia dana esaten da:

Jaungoikoa,
Zeugandik jatorku bedeinkapenaren betea
eta Zeugana doa bedeinkatzen zaituanaren otoitza.
Zaindu egizuz maitasunez zeure zerbitzariak.
Uste osoz aurkezten deutsuez euren lan-tresnak.
Emoiezu, aspertu bako ekintzaz,
lagun egin deizuela izadia osotzean,
irabazi dagiela euren eta etxekoen jana,
lan egin dagiela gizartearen aurrerakuntzan
eta goratu dagiela, eten barik, zure izenaren aintza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Edo:

Jaungoikoa,
izadiaren indarrak
gizon-emakumeek menperatu egiezala gura izan dozu.

Egiguzu, arren,
gure ekintzetan buru-belarri sarturik,
emon dagigula, maitasunez, gure laguntza
Zeuk sortutako izadia osotzen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Bedeinkapen otoitzaren ondoren, ospatzaileak, ondo badator, ur bedeinkatuaz txipristintzen ditu lan-tresnak eta han dagozanak, kantu egoki bat abesten dan bitartean.

Amaiera

Ospatzaileak ohikunea amaitzen dau, esanez:

Bere lan salbatzailea burutzeko
lanaren legea bereganatu eban Kristo Jaunak
arindu gagizala bere gozotasunez
eta emon deigula bakea.

E/ Amen.

Ondo legoke ohikunea abesti egoki batez amaitzea.

OHIKUNE LABURRA

Hasierako ohikuneak

Alkartea baturik, kantu egoki bat abestu daiteke. Amaitutakoan, honako hau dino ospatzaileak:

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Aitaren egiten dabe danak eta erantzuten dabe: Amen.

Ospatzaileak, abadea edo diakonoa bada, han dagozanak agurtzen ditu, berba honeek esanez:

Bere burua arotzaren semetzat
hartu gura izan eban Kristo,
Jaungoikoaren Semea,
izan bedi zuekin.

E/ Eta zure espirituarekin.

Liburu Santuetatik hartutako beste berba batzuk bere erabili daitez.

Ospatzaileak, laikoa bada, hau esanez egiten dau agurra:

Goratu dagigun
bere burua arotzaren semetzat

hartu gura izan eban Kristo,
Jaungoikoaren Semea.

E/ Amen.

Jaungoikoaren Berbea

Ospatzaileak berak edo han dagozanen arteko batek Liburu Santuko atal bat irakurten dau.

Si 38, 31.34

Honeek guztiak euren eskulanean dabe konfiantza, trebea da bakoitza bere lanbidean. Halan bere, hasieratik sortutako-ari jarraipena emoten deutsoe, euren lanbidea dabe otoizbide.

Jaunak esana.

2 Ts 3, 7-8

Ondo dakizue zelan jokatu behar dozuen gure ereduari jarraitzeko: ez ginan zuen artean zabarkerian bizi izan, ez genduan inoren kontura ogia jan; bestetara, gau eta egun lanean nekatu ginan, zuetako inorentzat zama ez izatearren.

Jaunak esana.

Bedeinkapen otoitza

Ospatzaileak, abadea edo diakonoa bada eskuak luzaturik, eta laikoa bada eskuak baturik, bedeinkapen otoitza esaten dau:

Egin dagigun otoitz

Izadiaren indarrak gizakiaren lanaren menpe jartea gura izan dozun Jaungoikoa.

Egizu, ekintzetan buru-belarri sarturik, geure laguntza emon dagigula, maitasunez, zuk sortutakoa burutzen.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Bedeinkapen otoitzaren ondoren, ospatzaileak, ondo badator, ur bedeinkatuaz txipristintzen ditu lan-tresnak eta han dagozanak, kantu egoki bat abesten dan bitartean.

III. ATALA

ABERE, SOLO ETA FRUTU BARRIEN BEDEINKAPENA

- 1. Abereen bedeinkapena**
- 2. Soloen bedeinkapena**
- 3. Frutu barrien aurkezpenaren
bedeinkapena**

1. ABEREEN BEDEINKAPENA

Hasierako ohikuneak

Alkartea baturik, kantu egoki bat abestu daiteke. Amaitutakoan, honako hau dino ospatzaileak:

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Aitaren egiten dabe danak eta erantzuten dabe: Amen.

Ospatzaileak, abadea edo diakonoa bada, han dagozanak agurtzen ditu, berba honeek esanez:

Bere ekintza guztietan
harrigarria dan Jaungoikoa
izan bedi zuekin.

E/ Eta zure espirituarekin.

Liburu Santutik hartutaño beste berba batzuk bere erabili daitez.

Ospatzaileak, laikoa bada, hau esanez egiten dau agurra:

Autortu dagigun
dana jakituriaz egin eban
Jaungoiko gure Jaunaren handitasuna.

E/ Amen.

Ospatzaileak bedeinkapena hartzeko prestatzen ditu han dagozanak,
berba batzuk esanez.

Jaungoikoaren Berbea

Ospatzaileak berak edo han dagozanen arteko batek Liburu Santuetako
atal bat irakurten dau.

Has 1, 1.20-28

Hasieran, Jainkoak zeru-lurrak egin zituan.

Jainkoak esan eban: «Egin dagiela urek borbor bizidunez,
eta egin dagiela hegaz hegaztiak lurraren gainean, airean». Eta
Jainkoak arraintzarrak egin zituan eta uretan borbor dabil-
tzan mota guztietako bizidunak eta mota guztietako hegaz-
tiak. Eta Jainkoak ona zala ikusi eban. Eta bedeinkatu egin
zituan, esanez: «Sortu egizuez umeak, ugaritu eta bete itsaso-
ko urak; ugaritu beitez hegaztiak ere lurraren gainean». Eta
arrats eta goiz: bosgarren eguna.

Jainkoak esan eban: «Sortu begiz lurrak mota guztietako
bizidunak: abereak, narrastiak eta piztiak». Eta holan izan zan.
Jainkoak mota guztietako piztiak, abereak eta narrastiak egin
zituan. Eta Jainkoak ona zala ikusi eban.

Eta Jainkoak esan eban: «Egin dagigun gizakia geure an-
tzera, geure irudiko; menperatu dagizala itsasoko arrainak,
zeruko hegaztiak, etxeko abereak eta lurreko narrastiak».

Jainkoak, beraz, bere irudiko egin eban gizakia, Jainkoaren
beraren irudiko egin eban; gizaseme eta emakume egin
zituan. Eta bedeinkatu egin zituan Jainkoak eta esan eutsen:
«Sortu egizuez umeak eta ugaritu, bete lurra eta izan beraren
nagusi; menperatu egizuez itsasoko arrainak, zeruko hegaz-
tiak eta lurrean dabilzan piztia guztiak».

Jaunak esana.

Has 2, 19-20a

Jainko Jaunak landako abere eta zeruko hegazti guztiak
moldatu zituan lurretik eta gizonari eroan eutsozan, zein
izen emoten eutsen ikusteko; honan, bada, bizidun guztiak
gizonak ezarritako izena daroe. Beraz, gizonak ezarri eutsen
izena abere guztiei, zeruko hegazti guztiei eta piztia guztiei.

Jaunak esana.

Baita irakurri daitekez: Has 6, 17-23; Is 11, 6-10

Irakurgai ondoren, salmo bat (8a, esate baterako) esan edo abestu daite-
ke, edo beste abesti egokiren bat.

Ospatzaileak, labur, Bibliako irakurgaia azaltzen dau, ospakizunaren esangurea fedez eurenganatu dagien.

Eskariak

Bere ustez egokienak diranak aukeratu edo gehitu daikez ospatzaileak.

Jaungoikoak gizakia sortu eban eta lurrean jarri eban, abere guztien gainetik izanik, Sortzailearen aintza autortu egian. Goratu dagigun, esanez:

E/ Zenbat diran, Jauna, Zuk egindakoak!

Bedeinkatua Zu, Jauna. Abereak sortu eta gure menpean jarri zenduzan, gure lanean lagun izan eitezan. *E/*

Bedeinkatua Zu, Jauna. Gure indarrak barritzeko abereen haragia emoten deuskuzu. *E/*

Bedeinkatua Zu, Jauna. Zure seme-alaben jolasgarri, etxeke animalien laguntza emoten deuskuzu. *E/*

Bedeinkatua Zu, Jauna. Jesusen Berbeak esan euskunez, Zuk janaritutako zeruko hegaztietan zure aita-ardurearen ezaugarria emoten deuskuzu. *E/*

Bedeinkatua Zu, Jauna. Zeure Semea emon deuskuzu Bildots lez eta beragan benetan zeure seme-alaba deitzea eta izatea gura izan dozu. *E/*

Bedeinkatua Zu, Jauna. Zeure izaki apalenen bidez zeure maitasunera erakarten gaituzu. *E/*

Bedeinkapen otoitza

Ospatzaileak, abadea edo diakonoa bada eskuak luzaturik, eta laikoa bada eskuak baturik, bedeinkapen otoitza esaten dau:

Egin dagigun otoitz.

Danak egiten dabe otoitz, isilean. Gero, hurrengoko otoitzen artean egokia dana esaten da:

Ondasun guztien egile eta emoile zaran Jaungoikoa,
Zuk egin dozu abereak ere
gizakiaren laguntza izan daitezala
bere beharrianetan eta lanetan.
Gure bizitzarako beharrezkoak
diran izaki honeek
behar dan moduan erabili dagiguzala
eskatzen deutsugu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Edo:

Dana jakituri az egin zenduan Jaungoikoa,
gizakia zeure irudira sortu ondoren,

zeure bedeinkapenaz,
 abere guztienganako aginpidea emon zeuntson.
 Zabaldu egizu ontasunez zeure eskua
 eta emon egiguzu
 abere honeek geure laguntzarako izan daitezala
 eta guk, zure zerbitzariok,
 oraingo ondasunen laguntzaz,
 bilatu dagiguzala, uste onez, geroakoak.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Bedeinkapen otoitzaren ondoren, ospatzaileak, ondo badator, ur bedeinkatuaz txipristintzen ditu abereak eta han dagozan gizon emakumeak, kantu egoki bat abesten dan bitartean.

Amaierea

Ospatzaileak ohikunea amaitzen dau, esanez:

Gure laguntzarako abereak sortu zituan Jaungoikoak
 babestu eta zaindu gagizala beti
 bere bedeinkapenaren graziaz.

E/ Amen.

Ondo legoke ohikunea abesti egoki batez amaitzea.

OHIKUNE LABURRA

Hasierako ohikuneak

Alkartea baturik, kantu egoki bat abestu daiteke. Amaitutakoan, honako hau dino ospatzaileak:

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Aitaren egiten dabe danak eta erantzuten dabe: Amen.

Ospatzaileak, abadea edo diakonoa bada, han dagozanak agurtzen ditu, berba honeek esanez:

Bere ekintza guztietan harrigarria dan Jaungoikoa
 izan bedi zuekin.

E/ Eta zure espirituarekin.

Liburu Santutik hartutako beste berba batzuk bere erabili daitez.

Ospatzaileak, laikoa bada, hau esanez egiten dau agurra:

Goratu dagigun
 dana jakituriaz egin eban
 Jaungoiko gure Jaunaren handitasuna.

E/ Amen.

Jaungoikoaren Berbea

Ospatzaileak berak edo han dagozanen arteko batek Liburu Santuetako atal bat irakurten dau.

Has 2, 20a

Beraz, gizonak ezarri eutsen izena abere guztiei, zeruko hegazti guztiei eta piztia guztiei.

Bedeinkapen otoitza

Ospatzaileak, abadea edo diakonoa bada eskuak luzaturik, eta laikoa bada eskuak baturik, bedeinkapen otoitza esaten dau:

Egin dagigun otoitz.

Dana jakituriaz egin zenduan Jaungoikoa, gizakia zeure irudira sortu ondoren, zeure bedeinkapenaz, abere guztienganako aginpidea emon zeuntson. Zabaldu egizu, ontasunez, zeure eskua eta emon egiguzu abere honeek geure laguntzarako izan daitezala eta guk, zure zerbitzariok, oraingo ondasunen laguntzaz, bilatu dagiguzala, uste onez, gerokoak. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Bedeinkapen otoitzaren ondoren, ospatzaileak, ondo badator, ur bedeinkatuaz txipristintzen ditu abereak eta han dagozan gizon-emakumeak, kantu egoki bat abesten dan bitartean.

2. SOLOEN BEDEINKAPENA

Hasierako ohikuneak

Alkartea baturik, kantu egoki bat abestu daiteke. Amaitutakoan, honako hau dino ospatzaileak:

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Aitaren egiten dabe danak eta erantzuten dabe: Amen.

Gero ospatzaileak, abadea edo diakonoa bada, han dagozanak agurtzen ditu, berba honeek esanez:

Bere ekintza guztietan harrigarria dan Jaungoikoa izan bedi zuekin.

E/ Eta zure espirituarekin.

Liburu Santutik hartutako beste berba batzuk bere erabili daikez.

Ospatzaileak, laikoa bada, hau esanez egiten dau agurra:

Bedeinkatu dagigun zeruko iruntza

eta lurraren emonkortasuna
gure eskuetan jarten dituan Jaungoikoa.

E/ Amen.

Ospatzaileak bedeinkapena hartzeko prestatzen ditu han dagozanak,
berba batzuk esanez.

Jaungoikoaren Berbea

Ospatzaileak berak edo han dagozanen arteko batek Liburu Santuko atal
bat irakurten dau.

Has 1, 1.11-12. 29-31

Hasieran, Jainkoak zeru-lurrak egin zituan. Jainkoak esan
eban: "Emon begiz lurrak bedar hezea, hazidun landareak eta
edozetariko frutarbolak euren hazi eta guzti".

Eta halan izan zan. Eta lurrak edozetariko hazidun landa-
rak eta frutarbolak euren hazi eta guzti emon zituan. Eta
Jainkoak ona zala ikusi eban.

Jainkoak esan eutsen: "Hara, zeuei emoten deutsuedaz
lurrazalean diran hazidun landara guztiak eta hazidun frutar-
bola guztiak; horreek izango dozuez janari. Abere, zeruko
hegazti eta lurrean narrastaka dabilzan bizidun guztiei, barriz,
bedar hezea emoten deutset janari".

Eta halan izan zan. Eta egin eban guztia oso ona zala ikusi
eban Jainkoak. Holan, seigarren eguna burutu zan.

Jaunak esana.

Dt 32, 10c-14

Goi-goikoak inguratu eta bere ardurapean hartu eban
Israel eta begininia lez zaindu. Arranoak, habiaren gain
hegaz, kumeak hegadarako bizkortzen dituan lez, halantxe
Jaunak bere: hegoak zabaldu, israeldarrak hartu eta luma gai-
nean eroan zituan. Jaunak bakarrik eroan zituan, ez eban
beragaz jainko arrotzik. Mendi gainetan ezarri zituan, landa-
ko frutuz janaritu; baseztiz hazi zituan, harkaitzetik sorturiko
olioz; behi-gatzatua eta ardi-esnea, bildots gizenen haragia,
aukerako ahariak eta akerrak, ogiurun garbi bikaina emon
eutson janari eta ardaoa, mahats-odola, edari.

Jaunak esana.

Baita irakurri daitekez: Mt 6, 25-34; Mk 4, 26-29.

Irakurgai ondoren, salmo bat (103a, esate baterako) esan edo abestu dai-
teke, edo beste abesti egokiren bat.

Ospatzaileak, labur, Bibliako irakurgai azaltzen dau, ospakizunaren
esangurea fedez eurenganatu dagien.

Eskariak

Bere ustez egokienak diranak aukeratu edo gehitu daikez ospatzaileak.

Jaungoiko arduratsuak, guztien Aitak, maitasunez, bere seme-
alaben ardurea dauko eta janaritu eta babestu egiten ditu,

lurrak bedeinkatuz, gizakia bizi ahal izateko frutuak emon dagizan.

Seme-alaba lez, dei egin deiogun, esanez:

E/ Entzun, arren, Jauna

Paulo apostoluaren bidez zeure solo deitu ginduzuzan Horrek,
- egizu, zeure borondatea betez, bizi gaitetzala beti zeuri loturik. *E/*

Kristo dan mahatsondoaren aihenak garala irakatsi zeunskun Horrek,
- egizu, zeure Semeagan bizirik, frutu ugari emon dagigula. *E/*

Lurra ugari bedeinkatzen eta aberasten dozun Horrek.
- egizu, gure soloek, zeure bedeinkapenaz, sortu dagiela behar dogun janaria. *E/*

Gure eguneroko ogia eta Eukaristiaren janaria emoteko garia ugaritzen dozun Horrek,
- emoiguzuz uzta ugariak zeruko iruntzaz eta lurraren emonkortasunaz. *E/*

Zeruko hegaztiak janaritzen eta soloetako liliak janzen dozuzan Horrek,
- irakatsi egiguzu zeure erreinuaz eta zeure zuzenbidez gehiago arduratzen zer janaz eta zer jantziaz baino. *E/*

Bedeinkapen otoitza

Ospatzaileak, abadea edo diakonoa bada eskuak luzaturik, eta bestela eskuak baturik, bedeinkapen otoitza esaten dau:

Egin dagigun otoitz.

Danak egiten dabe otoitz, isilean. Gero, hurrengoko otoitzen artean egokia dana esaten da:

Gizakiari lurra zaintzeko eta lantzeko agindu zeuntson Jauna eta santu zaran Aita,
apaltasunez eskatzen deusugu
emon deiguzuzala beti uzta ugariak,
emon deiozula emonkortasuna guk ereindakoari,
eta gure soloetatik ekaitzak eta txingorra uxatuz,
gure haziak ugaritasunez erne daitezala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen

Edo:

Munduaren hasieran,
zeure arduraz lurrak bedar berdea erne egiala
eta era guztietako frutuak sortu egizala
agindu zenduan
eta ereiteko hazia eta jateko ogia
emoten deuskuzuzan Jaungoikoa:

Egizu, zure ontasunak ernarazotako eta gizakiaren lanak landutako lur honek gainezka izan dagizala frutu ugariak, eta zure herriak, ondasunez beterik, goratu zagizala, eten barik, orain eta beti. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Amaierea

Ospatzaileak ohikunea amaitzen dau, esanez:

Ondasun guztien iturri dan Jaungoikoak bedeinkatu zagiezala ✠ eta emon deiola emonkortasuna zuen lanari, bere dohaiekin poztu zaitezen eta beti goratu dagizuen.

E/ Amen.

Ospatzaileak, laikoa bada, Aitaren eginda eta hau esanda amaitzen dau ohikunea:

Ondasun guztien iturri dan Jaungoikoak bedeinkatu gagizala eta emon deiola emonkortasuna gure lanari,

bere dohaiekin poztu gaitezan eta beti goratu dagigun.

E/ Amen

Ondo legoke ohikunea abesti egoki batez amaitzea.

3. FRUTU BARRIEN AURKEZPENAREN BEDEINKAPENA

Hasierako ohikuneak

Alkartea baturik, kantu egoki bat abestu daiteke. Amaitutakoan honako hau dino ospatzaileak:

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Aitaren egiten dabe danak eta erantzuten dabe: Amen.

Ospatzaileak, abadea edo diakonoa bada, han dagozanak agurtzen ditu, berba honeek esanez:

Zeru lurrak sortu ebazan Jaungoikoa izan bedi zuekin.

E/ Eta zure espirituarekin.

Liburu Santuetatik hartutako beste berba batzuk bere erabili daitez.

Ospatzaileak, laikoa bada, hau esanez egiten dau agurra:

Goratu dagigun ereserkiekin, gizaldietan,
lurretik ataratako janaria emoten deuskun
Jaungoiko guztiz arduratsua.

E/ Amen.

Ospatzaileak bedeinkapena hartzeko prestatzen ditu han dagozanak
berba batzuk esanez.

Jaungoikoaren Berbea

Ospatzaileak berak edo han dagozanen arteko batek Liburu Santuko atal
bat irakurten dau.

Eg 14, 15b-17

Eta barri on hau adierazoten deutsuegu, hain zuzen: itzi
dagizuezala idolo hutsalak eta bihurtu zaitezela Jainko bizi-
gana, zero-lurrak, itsasoa eta horreetan dagoan guztia egin
dituanagana. Joandako gizaldietan Jainkoak herri bakoitzari

bere bidetik joaten itzi deutso; baina ez bere burua ezagutze-
ra emon barik, egiten dituan mesedeen bidez: euria eta urta-
ro aberatsak bialdu deutsuez zerutik, eta janariz eta pozez
bete zaitue».

Jaunak esana.

Baita irakurri daitezkeez: Dt 27, 1a; 28, 1-12b; Jl 2, 21-24. 26-27; 1Tm 6,
6-11. 17-19; Lk 12, 15-21.

Irakurgai ondoren, salmo bat (66a, esate baterako) esan edo abestu dai-
teke, edo beste abesti egokiren bat.

Ospatzaileak, labur, Bibliako irakurgaia azaltzen deutse han dagozanei,
ospakizunaren esangurea fedez eurenganatu dagien.

Eskariak

Bere ustez egokienak diranak aukeratu edo gehitu daitez ospatzaileak.

Jaunari gure eskuen lanagaitik eskerrak emonez bere bedeinkapena eskatzen deutsagunean, ez dagigun ahaztu gure bizi-
tzan zuzentasun frutuak emon behar doguzala. Aurkeztu deio-
guzan, ba, gure eskariak Jaungoikoari, honako hau esanez:

E/ *Ikusi, Jauna, gure lanaren frutua.*

Lurretik jasotako janaria aita baten antzera emoten deuskun
Jaungoiko guztiz arduratsua,

- egizu, gure bekokiaren izerdiz batu doguzan frutu honek izan daitezala gure biziari eusteko eta gure giza izatea garatzeko. **E/**

Zeure Seme Jesu Kristoren bidez zuzentasun frutuz bete gaituzun Horrek,

- emoiguzu, Beragan iraunez, parte hartu dagigula bere bizitza-betetasunean eta frutu ugaria emon dagigula. **E/**

Eukaristian gure lanaren frutua diran ogia eta ardao gure fedearen sakramentuaren ezaugarritzat erabilten dozuzan Horrek,

- emoiguzu zeure Semearen mahaian Zeuretzat hartzen doguzan dohai honeek janaritu dagiela Eleizearen bizitza. **E/**

Ondasun guztietan zeure seme-alabak bardin esku hartu dagiela gura dozun Horrek,

- egizu beharrianean dagozanak larritasun eta arazo bako bizitza izan dagiela eta bizi daitezala zu goratzen. **E/**

Bedeinkapen otoitza

Ospatzaileak, abadea edo diakonoa bada eskuak luzaturik, eta bestela eskuak baturik, bedeinkapen otoitza esaten dau:

Egin dagigun otoitz.

Danak egiten dabe otoitz, isilean. Gero, hurrengoko otoitzen artean egokia dana esaten da:

Gure Jaun eta Jaungoikoa, gauza guztien Sortzailea, zeruko iruntzaz eta lurraren emonkortasunaz uzta ugariak emoten deuskuzuz.

Eskerrak emoten deusuguz batu doguzan frutuakaitik eta, zure eskuzabaltasunari esker hartutako dohai honeen bidez zure jarraitzaileen gurariak bete dozuzanez, emoiguzu zeure errukiagaitik eten barik Zeu goratzea, eta lur honetako ondasunak erabilteak bultzatu gagizala betikoak ardura gehiagoz bilatzera. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Edo:

Zure ontasuna eskatzen dogu, Jaungoiko ahalguztiduna, lurreko frutuenganako zure bedeinkapenak gehitu dagizuzan, haizea eta euria egoki bananduz; zure herriak eskerrak emon ahal deizuzala beti zure dohaiakaitik, gose diranak ase daitezala zure ondasunekin, eta behartsuak eta preminadunak, lurraren emonkortasunari esker, goratu ahal izan dagiela zure izenaren aintza. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Amaierea

Ospatzaileak ohikunea amaitzen dau, esanez:

Bedeinkatu dagiguzan Aita eta Semea Espiritu Santuagaz
batera,
goratu dagiguzan ereserkiekin gizaldietan zehar.

E/ Amen.

Ondo legoke ohikunea abesti egoki batez amaitzea.

IV. ATALA

LITURGIARAKO EDO ERASPENETARAKO ELEIZAN ERABILTEN DIRAN GAUZEN BEDEINKAPENA

1. Kurutzearen bedeinkapena
2. Jesu Kristo gure Jaunaren irudiaren bedeinkapena
3. Ama Birjinaren irudiaren bedeinkapena
4. Santuen irudiaren bedeinkapena
5. Uraren bedeinkapena, Mezatik kanpo

1. KURUTZEAREN BEDEINKAPENA

Bedeinkapen hau abadeak egin daike.

Edozein egunetan egin daiteke bedeinkapena, Hauts egunean, Pazko Hirurrenean eta Hildako fededun guztien oroipen egunean izan ezik.

Aurkezten dan ohikunea honako bietan egiten da:

- a) leku agirian jasotako kurutzea bedeinkatu behar danean;
- b) eleizako kurutze nagusia bedeinkatu behar danean.

Hasierako ohikuneak

Kurutzea dagoan tokian alkartea baturik, kantu egoki bat abestu daiteke. Amaitutakoan, honako hau dino ospatzaileak:

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Aitaren egiten dabe danak eta erantzuten dabe: Amen.

Ospatzaileak han dagozanak agurtzen ditu, berba honeek esanez:

Egurretik eskegita egon zan
Jesu Kristo gure Jaunaren grazia
izan bedi zuekin.

E/ Eta zure espirituarekin.

Liburu Santuetatik hartutako beste berba batzuk bere erabili daikez.

Ospatzaileak bedeinkapena hartzeko prestatzen ditu han dagozanak, berba batzuk esanez.

Jaungoikoaren Berbea

Ospatzaileak berak edo han dagozanen arteko batek Liburu Santuko atal bat irakurten dau.

Flp 2, 5-11

Izan egizuez zeuengan Kristo Jesusi jagokozan asmoak:
Harek, Jainkoaren izaera bereko izanik,
ez eutson gogor eutsi Jainkoagaz bardin izateari;
bestela baino, bere izaeraz hustu egin zan
morroi-izaera hartuz,
eta beste edozein lez azalduz.
Eta, gizon lez agerturik,
apaldu egin eban bere burua,
menpeko eginez heriotzaraino,
kurutzeko heriotzaraino.
Horregaitik, Jainkoak goratu egin eban
eta izen guztien gaineko izena emon eutson,
Jesusen izenera
guztien belauinak makurtu daitezana,

zeruan, lurrean eta lurpean,
eta mihin guztiek autortu dagien:
Jesu Kristo, Jauna da, Aita Jainkoaren aintzarako.

Jaunak esana.

Baita irakurri daitekez: Zen 21, 4-9; 1 Ko 2, 1-5; Heb 4, 12-16; Jn 3, 13-17; Jn 19, 25-27.

Irakurgai ondoren, salmo bat (30a) esan edo abestu daiteke, edo beste abesti egokiren bat.

Ospatzaileak, labur, Bibliako irakurgaia azaltzen dau, ospakizunaren esangurea fedez eurenganatu dagien.

Bedeinkapen otoitza

Ospatzaileak, kurutzearen aurrean zutunik, eskuak zabalduz, bedeinkapen otoitza esaten dau:

Bedeinkatzen zaitugu, Jauna, santu zaran Aita.
Zure gainezkako maitasuna zala eta,
salbamenaren eta bizitzaren osagarria emon zeunskun
lehenengo gizonak hondamendia eta heriotzea lortu eban
arbolan.
Izan ere, bere Pazkoaren ordua heldu zanean,
Jaun, abade eta errege zan Jesusek
borondatez igon eban Kurutzeko zugatzera
eta bere aintzaren aulki,
opariaren altara
eta egiaren katedra bihurtu eban.

Han, lurraren gainean jasorik,
 antzinako arerioa menperatu eban
 eta bere odolaren purpuraz jantzirik,
 bereganatu egin ebazan, maitasunez beterik,
 gizon-emakume guztiak;
 han, besoak zabaldurik,
 bere bizitzaren eskeintza egin eutsun, Aita,
 eta indar salbatzailea emon eutsen alkartasun barriko sakra-
 mentuei;
 han, bere heriotzeaz erakutsi eban aurretik hitzez iragarri
 izan ebana:
 gari garauak, hiltan danean, frutua ugari emoten dauala.
 Horregaitik, ba, Jauna, eskatzen deutsugu,
 zure jarraitzaileek, salbamen ikur hau ohoratzean,
 hartu dagiezala Kristo Jesusek bere nekaldiaz
 merezidu izan ebazan erospen frutuak;
 kurutzean euren pekatuak hil dagiezala eta,
 kurutze honen ahalmenez, gainditu dagiela harrokeria
 eta osatu dagiela euren makaltasuna;
 beragan aurkitu dagiela poza atsekabeetan
 eta ziurtasuna arriskueta;
 eta bere ahalmenak babesturik,
 min barik ibili daitezala mundu honetako bideetan,
 Zeuk, Aita, zeruko etxean hartuko dozuzan arte.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Edo:

Jauna, santu zaran Aita.
 Bedeinkapen guztien iturria
 eta Zuk guretzako dozuzan ondasunen jatorria izatea
 gura izan zenduan zure Semearen kurutzea.
 Kurutze hau gure fedearen testigantza lez jaso dogunez,
 entzun egizuz, eskuzabaltasunez, gure eskariak,
 eta emoiguzu,
 hemen lurrean
 Kristoren nekaldiaren misterioari
 beti lotuta bizi izanik,
 lortu dagigula berbiztearen betiko poza.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Bedeinkapen otoitzaren ondoren, ospatzaileak intsentsua jarten dau intsentsu ontzian eta lurrindu egiten dau kurutzea.
 Gero, kantu egoki bat abesten da kurutze santuaren ohorez.
 Kantua amaitutakoan, ospatzaileak eta eleiztarrek kurutzea agurtzen dabe.

Amaiera

Kurutzearen ohoratzea amaitutakoan, herri otoitza esaten da.

Dei egin deiogun bere kurutzeaz erosi gaituan geure Eros-
 leari eta esan deiogun:

E/ Zure kurutzeagaitik, salbau gagizuz, Jauna.

Kristo, Zuk zeure aintza bertan behera itzi zenduan eta morroi izatea leporatu, beste edozein bazina lez,

- egizu, eleiztar guztiok apalak izan gaitezala, zeure antzera. *E/*

Kristo, Zu heriotzearen menpe eta, hain zuzen, kurutzean jasadako heriotzearen menpe jarteraino beheratu zinan,

- emoiguzu zeure zerbitzarioi menpetasunaren eta eroapenaren onoiarena. *E/*

Kristo, Jaungoikoak danen gainetik jaso zinduzan eta "izen guztien gainetik izena" emon eutsun,

- emoiezu zeure jarraitzaileei zure zerbitzuan azkenera arte irautea. *E/*

Kristo, zeure izenean danak belaunikatu behar dabe zeruan, lurrean eta lezeetan,

- erakarri egizuz gizon emakume guztiak zeure bihotzera, fedez ohoratu eta gurtu zagiezan. *E/*

Kristo, mihin guztiak Jauna autortuko zaitue, Jaungoiko Aitaren aintzarako,

- hartu egizuz hildako gure anai-arrebak betiko zorionaren erreinuan. *E/*

Gero, ospatzaileak Jaunaren otoitza sartzen dau, berba honeen edo antzerakoen bidez:

Nekaldian Jesu Kristoren berbak eta erakutsia jarraiturik, esan dagigun, uste osoz, Jaungoiko gure Aitaren borondatearen menpe jarten gaituan otoitza:

Danok:

Gure Aita...

Jarraian, hauxe dino ospatzaileak:

Kurutzean hildako zure Semearen bitartez
Gizon-emakume guztien salbamena
burutu gura izan dozun Jauna, gure Jaungoikoa,
emoiguzu, arren, lurrean misterio hau ezagutu dogunoi,
erospenaren sariak zeruan jaristeak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Gero, ospatzaileak herria bedeinkatzen dau ohi danez eta diakonoak agur egiten deutso herriari.

2. JESU KRISTO GURE JAUNAREN IRUDIAREN BEDEINKAPENA

Bedeinkapen hau abadeak egin daike.

Hasierako ohikuneak

Alkartea baturik, kantu egoki bat abestu daiteke. Amaitutakoan, honako hau dino ospatzaileak:

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Aitaren egiten dabe danak eta erantzuten dabe: Amen.

Ospatzaileak, abadea nahiz diakonoa izan, han dagozanak agurtzen ditu, berba honeek esanez:

Jaungoiko Aitaren
eta ikustezina dan Jaungoikoaren irudia dan
Jesu Kristoren grazia eta bakea zuekin.

E/ Eta zure espirituarekin.

Liburu Santuetatik hartutako beste berba batzuk bere erabili daikez.

Ospatzaileak bedeinkapena hartzeko prestatzen ditu han dagozanak, berba batzuk esanez.

Jaungoikoaren Berbea

Ospatzaileak berak edo han dagozanen arteko batek Liburu Santuko atal bat irakurten dau.

Kol 1, 12-20

Pozez beterik, eskerrak emon egiozuez Aitari, argiaren erreinuan bere herri santuarentzat prestatuak dituan ondasunetan parte izateko gai egin zaituenari. Berak atara gaitu ilunpearen menpetik eta bere Seme maitearen erreinura aldatu; Honengan dogu askapena, pekatuen parkamena.

Jesu Kristo Jainko ikusezinaren irudi da,

sorkari guztietan lehensemea.

Gauza guztiak Beronen bidez eginak dira eta, zeru-lurretakoak, agiri diranak eta ez diranak:

Aulki, Jaun, Nagusi eta Agintedunak;

gauza guztiak Beraren bidez

eta Berarentzat dira eginak.

Diran guztiak baino lehenago da Bera,

eta guztiek Beragan diraue.

Gorputzaren buru ere Bera da,

hau da, Eleizearen buru.

Bera da hasierea, hilen arteko lehensemea, diran guztietan Bera izan daiten lehenengoa.

Jainkoaren gogoko izan da eta

betearen betea Harengan egotea,

eta, haren bidez, gauza guztiak Beragaz adiskidetzea;

haren kurutzeko odolaz bakeak eginik,

zeru-lurretan diran guztiekin.

Jaunak esana.

Baita irakurri daiteke: Jn 14, 1-11.

Irakurgai ondoren, salmo bat (8a) esan edo abestu daiteke, edo beste abesti egokiren bat.

Ospatzaileak, labur, Bibliako irakurgaia azaltzen dau, ospakizunaren esangurea fedez eurenganatu dagien.

Eskariak

Bere ustez egokienak diranak aukeratu edo gehitu daikez ospatzaileak.

Dei egin deiogun Jaungoiko Aitari. Berak emon deusku salbatzailetzat eta erosletzat bere Berbea. Honen bidez egin da dana eta Beronek eusten deutso danari. Esan deiogun Aitari:

E/ Egizu, zeure Semearen irudi izan gaitetzala.

Aita, zure Semea azken bako jakituria da eta Egiarik gorengo,

- egizu, geroago eta sakonago ezagutuz, beragaz gehiago bat egitea gura izan dagigula. *E/*

Aita, zure Semea bialduaz, lurra poztasunez gainezka jarri zenduan.

- poztu egizu gure bihotza Kristoren etengabeko gure artean egoteaz. *E/*

Aita, Kristo abade, errege eta profeta igurtzi zenduan,

- egizu, berak aurkitu gaizala zeure begientzat opari atsegingarri, zerbitzari zintzo eta jarraitzaile zuhur. *E/*

Aita, Kristo guretzat irakasle bigun eta bihotz apal izatea gura izan zenduan,

- egizu beragandik apal ikasi dagigula samurtasuna eta ontasuna. *E/*

Aita, Kristoren kurutzeko odolaren bidez izaki guztiak adiskidetu zenduzan Zeugaz,

- egizu, egin dagigula lan adiskidetasun eta bakearen alde. *E/*

Aita, heriotzearen eta infernuaren ahalmena apurtzeko, zeure ardurearen gorengo erabagiz, gure Salbatzailea egur batetik eskegita egotea itzi zenduan,

- egizu, bere heriotzeagaz bat egin dagigula bere biztueran ere parte hartu dagigun. *E/*

Bedeinkapen otoitza

Ospatzaileak, eskuak zabalduz, bedeinkapen otoitza esaten dau:

Gizadiaren lagun mina zaran Aita,
Zeure Berbea mundura bialdu zendualako
bedeinkatzen zaitugu.

Birjina guztiz garbiagan gizon eta,
pekatuan izan ezik, gure antzeko egin zenduan
gure salbatzaile eta lehen anaia izan eiten.

Kristogan emon zeunskun santutasunaren eredurik gorengoena;
 Eleizeak bere umearoan ohoratzen dau
 eta sehaskan ume makal antzean ikusten dauanean
 Jaungoiko ahalguztidun lez gurtzen dau,
 bere aurpegira begiratzen dauanean
 zure ontasunaren azalpena ikusten dau bertan,
 eta bere ahotik bizitza-berbak hartzen dituanean
 zure jakituriaz beteten da;
 bere bihotzaren maitasunaren sakontasuna aztertzen dauanean
 bizi barri batera jaioteko isuri eban Espirituaren su haretan
 erreten da bera ere,
 bere jainko odolaz gorrituta begiratzen dauanean
 ohoratu egiten dau odol baliotsu hori; odol honek garbitu
 dau bera ere.

Eta Kristoren biztueragaitik poztean
 aurretiaz parte hartzen dau bere Senarraren aintzatan.
 Zuri, ba, Jauna, eskatzen deutsugu apal-apalik,
 zure seme-alabek, Kristoren irudi hau ohoratzean
 izan dagiezala Kristo Jesus beraren sentipenak eta,
 lurreko gizon-emakumeen irudi diranez,
 izan daitezala, egunen baten,
 zeruko gizon-emakumeen irudi bere.
 Aita, zure Semea izan daitela eurentzat
 Zeugana daroazan bidea,
 euren bihotzak argitzen dituan egia,
 janaritzeko eta bizitzeko bizia;
 bera izan daitela beti bideko ilunak kentzen dituan argia,
 nekatzen diranean atsedena hartzeko harria,

Jerusalen barrian onartuak izango diran atea.
 Bera bizi da errege gizaldien gizaldietan.

E/ Amen.

Edo:

Jaungoikoa, heldu ezinezko argitan bizi zara
 eta maite maite izan gaituzu,
 ikustezina izanez,
 Kristogan guretzat ikusgarria egiteraino;
 begiratu ontasunez
 zure Semearen irudi hau egin dabene zure seme-alaba honeek,
 eta egizu, bera ohoratzean,
 egin daitezala irudi horrek adierazoten dauan gauza bera.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Amaierea

Ospatzaileak herria bedeinkatzen dau, bere gainera eskuak zabaldurik,
 eta honako hau esanez:

Eritzi guztien gainetik dagoan Jaungoikoaren bakeak
 zaindu dagizala zuen bihotzak eta zuen pentsaerak
 Jaungoikoaren eta bere Seme Jesu Kristo gure Jaunaren
 ezagupidean eta maitasunean.

E/ Amen.

Eta Jaungoiko ahalguztidunaren,
Aitaren eta Semearen ✠ eta Espiritu Santuaren bedeinkapena
jaitsi daitela zuengana eta lagun egin deizuela beti.

E/ Amen.

Ondo legoke ohikunea abesti egoki batez amaitzea.

3. AMA BIRJINAREN IRUDIAREN BEDEINKAPENA

Bedeinkapen hau abadeak egin daike.

Hasierako ohikuneak

Alkartea baturik, kantu egoki bat abestu daiteke. Amaitutakoan, honako
hau dino ospatzaileak:

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Aitaren egiten dabe danak eta erantzuten dabe: Amen.

Ospatzaileak, abadea edo diakonoa izan, han dagozanak agurtzen ditu,
berba honeek esanez:

Maria Birjinagandik jaiotako
Jesu Kristo gure Jaunaren grazia,

Aitaren maitasuna
eta Espiritu Santuaren batasuna
izan bedi zuekin.

E/ Eta zure espirituarekin.

Liburu Santuetatik hartutako beste berba batzuk bere erabili daikez.

Ospatzaileak bedeinkapena hartzeko prestatzen ditu han dagozanak,
berba batzuk esanez.

Jaungoikoaren Berbea

Ospatzaileak berak edo han dagozanen arteko batek Liburu Santuko atal
bat irakurten dau.

Lk 1, 42-50

Elisabetek esan eban oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko frutua. Nor naz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etorteko? Zure agurra nire belarrietara heldu orduko, jauzia egin deust haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan deutsuna beteko dala sinestu dozulako!»

Orduan, Mariak esan eban:

«Handiesten dau nire arimak Jauna,
pozen pozez daukat neure barrena;
Jainkoa da-eta nire salbamena,

ikusi dau-eta mirabe honen ezereztasuna.
Dohatsu deituko nabe gaurtik gizaldi guztiek,
handiak egin deustaz-eta Ahalguztidunak:
Santua da haren izena,
eta haren errukia gizaldiz gizaldi,
bildur deutsoenengana.

Jaunak esana.

Baita irakurri daitezke: Lk 1, 26-38; Jn 19, 25-27.

Irakurgai ondoren, salmo bat (112a) esan edo abestu daiteke, edo beste abesti egokiren bat.

Ospatzaileak, labur, Bibliako irakurgaia azaltzen dau, ospakizunaren esangurea fedez eurenganatu dagien.

Eskariak

Bere ustez egokienak diranak aukeratu edo gehitu daikez ospatzaileak.

Zuzendu deioguzan geure eskariak Maria Birjinagandik jaiotea gura izan eban Salbatzaileari, eta esan deiogun:

E/ Zure Ama, Jauna, izan daitela gure bitarteko.

Zeure erospenaren eraginez zure Ama pekatuaren lohi guztitik zaindu zenduan munduaren Salbatzailea,

- askatu gagizuz erru guztietatik. *E/*

Maria Birjina Zu gure artean egotearen bitarteko eta Espiritu Santuaren bizileku egin zenduan gure Eroslea,

- egin gagizuz zeure Espirituaren bizileku dan eleiza. *E/*

Zure Ama zeure kurutzearen ondoan egotea gura izan zenduan gure Abadea,

- egizu, bere bitartez, zeure nekeetan alaitasunez esku hartu dagigula. *E/*

Zure Ama Zeugaz batera, gorputz eta arima, zerura jaso zenduan erregeen Erregea,

- egizu, beti bilatu dagiguzala zeruko ondasunak. *E/*

Maria Erregina zeure eskuman jarri dozun zeru lurren Jauna,

- emoiguzu egun batean zeure aintzatan parte hartu dagigula. *E/*

Bedeinkapen otoitza

Ospatzaileak, eskuak zabaldurik, bedeinkapen otoitza esaten dau:

Goratzen zaitugu, Jaungoiko Jaun handi hori,
mundua sortu baino lehen

Kristo jarri zenduan gauza guztien hasiera eta amaiera;
eta, zure ontasunezko asmoetan,

beragaz lotu zenduan Birjina guztiz santua,
 Ama eta zure Semearen laguntzaile,
 Eleizearen irudi eta eredu,
 gu guztion ama eta babesle, izan eitean:
 bera da, izan bere,
 antzinako Ebaren hondamendia osatu eban emakume barria,
 bere eskari zorrotza patriarken eskabideekin bat eginik
 antzinako Israelen itxaropenak
 bere bihotzean hartu ebazan Siongo alaba bikaina,
 Zuzentasun Eguzkia dan Jesu Kristo gure Jauna sortu eban
 zerbitzari behartsu eta apala.
 Santu zaran Aita, haxe eskatzen deutsugu:
 Birjina guztiz santuaren irudi hau landu daben zure jarraitzaileek
 izan dagiela beti zure babesa
 eta ezarri dagiela euren bihotzetan euren begiek ikusten daben irudia.
 Izan dagiela hautsi ezinezko fedea,
 itxaropen sendoa, maitasun arduratsua eta apaltasun zintzoa;
 izan dagiela indarra nekaldietan,
 duintasuna beharrian,
 eroapena zoritxarrean,
 bihotz zabaltasuna zorionean;
 lan egin dagiela bakearen alde
 eta burrukatu zuzentasunaren alde,
 mundu honetako bideak zure
 eta anai-arreben maitasunean egin ondoren,
 betiko Urira heldu daitezana.

Han, Birjina guztiz santuak, Ama lez, bitarteko egiten dau
 eta Erregina lez, argi egiten.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Edo:

Jaungoikoa,
 mundu honetatik zehar erromes doan zure Eleizeari
 geroko aintzaren irudia emon deutsazu Birjina guztiz santuagan.
 Aintza horretara heltzeko itxaropenez bizi da Eleiza hori.
 Egizu, Andra Mariaren irudi hau landu daben zure jarraitzaileek
 jaso dagiezala euren begiak beragana.
 Izan bere, ontasun eredu lez argi egiten dau
 zure aukeratuen herri guztiarentzat.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Bedeinkapen otoitzaren ondoren, ospatzaileak intsentsua jarten dau
 lurrin ontzian eta lurrindu egiten dau irudia. Bitartean kantu egoki bat
 abesten da.

Amaierea

Ospatzaileak herria bedeinkatzen dau, bere gainera eskuak zabaldurik,
 eta honako hau esanez:

Bere ardura maitekorrez
Maria Birjinaren sabel bedeinkatuaren frutuagaitik
gizadia salbau gura izan eban Jaungoikoak
bete zagiezala bere bedeinkapenez.

E/ Amen.

Beti lagun izan dagizuela Ama Birjinaren babes,
Beragandik hartu dozue-eta bizitzaren Egilea.

E/ Amen.

Beraganako debozinoz gaur batu zaren guztioi
emon deizuezala Jaunak
Espirituaren poza
eta bere erreinuko ondasunak.

E/ Amen.

Eta Jaungoiko ahalguztidunaren,
Aitaren eta Semearen ✠ eta Espiritu Santuaren bedeinkapena
jaitsi daitela zuengana eta lagun egin deizuela beti.

E/ Amen.

Ondo legoke ohikunea abesti egoki batez amaitzea.

4. SANTUEN IRUDIAREN BEDEINKAPENA

Hasierako ohikuneak

Alkartea baturik, kantu egoki bat abestu daiteke. Amaitutakoan, honako hau dino ospatzaileak:

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Aitaren egiten dabe danak eta erantzuten dabe: Amen.

Ospatzaileak, abadea zein diakonoa izan, han dagozanak agurtzen ditu, berba honeek esanez:

Santuen koroia dan Jesu Kristo gure Jaunaren grazia,
Aitaren maitasuna
eta Espiritu Santuaren batasuna
izan bedi zuekin.

E/ Eta zure espirituarekin.

Liburu Santuetatik hartutako beste berba batzuk bere erabili daikez.

Ospatzaileak bedeinkapena hartzeko prestatzen ditu han dagozanak, berba batzuk esanez.

Jaungoikoaren Berbea

Ospatzaileak berak edo han dagozanen arteko batek Liburu Santuko atal bat irakurten dau.

Mt 5, 1-12a

Jentetza ikusirik, Jesusek mendira igon eban. Jesarri eta ikasleak inguratu jakozan. Orduan, honan hasi jaken irakas-ten:

«Zorionekoak gogoz behartsu diranak,
eurena dabe-eta Jainkoaren erreinua.
Zorionekoak atsekabetuak,
eurak kontsolatuko ditu-eta Jainkoak.
Zorionekoak apalak,
eurak izango dabe-eta agindutako lurra ondare.
Zorionekoak zuzentasunaren gose eta egarri diranak,
eurak aseko ditu-eta Jainkoak.
Zorionekoak errukitsuak,
eurak ditu-eta Jainkoak erruki izango.
Zorionekoak bihotzez garbi diranak,
eurek ikusiko dabe-eta Jainkoa.
Zorionekoak bakegileak,
Jainkoaren seme-alaba izango dira-eta.
Zorionekoak zuzentasunagaitik erasotuak,
eurena dabe-eta Jainkoaren erreinua.

Zorionekoak zuek, Nigaitik madarikatuko zaitueenean, erasoka eta guzurrez txarto esaka erabiliko zaitueenean.

Poztu zaitetze eta alaitu, handia izango da-eta zuen saria zeruetan».

Jaunak esana.

Baita irakurri daitekez: Ef 3, 14-19; 1 P 4, 7b-11; 1 Jn 5, 1-5.

Irakurgai ondoren, salmo bat (1a) esan edo abestu daiteke, edo beste abesti egokiren bat.

Ospatzaileak, labur, Bibliako irakurgai azaltzen dau, ospakizunaren esangurea fedez eurenganatu dagien.

Eskariak

Bere ustez egokienak diranak aukeratu edo gehitu daikez ospatzaileak.

Zuzendu deioguzan geure eskariak Jaungoiko Aitari. Bere Semearen irudiz eratzen ditu santuak, eta Espiritu Santuaren indarrez santutzen dau Eleizea beti eta beti. Esan deiogun:

E/ Salbau gagizuz, Jauna, I. ren bitartekotasunez.

Santutasunaren iturri zaran Jaungoikoa. Zeure era guztitako graziaren harrigarriak zure santuengan argi egin dagiela egin dozun Horrek,

- emon egiguzu ospatu dagigula eurengan zure handitasuna. E/

Kristoren bitartez Apostoluak zeure Eleizearen oinarri egin dozuzan Jakituria zaran Jaungoikoa,

- zaindu egizuz zeure jarraitzaileak euren erakutsietan. **E/**

Martiriei euren odola isurtzerainoko testigantzaren indarra emon deutsezun Horrek,

- egizu kristinauak izan daitezala zure Semearen lekuko zintzo. **E/**

Birjina santuei birjina izan zen Kristoren irudi izateko dohai handia emon deutsezun Horrek,

- egizu izan dagiela Zuri eskeinitako birjintasuna zeruko ondasunen aparteko ezaugarri. **E/**

Santu guztiengan zeure presentzia, zeure aurpegia eta zeure berbea azaltzen dozuzan Horrek,

- emon egiezu zeure jarraitzaileei, zure antzera jokatzuz, Zugandik hurrago somatu dagiela euren burua. **E/**

Bedeinkapen otoitza

Ospatzaileak, eskuak zabalduz, bedeinkapen otoitza esaten dau:

Autortu dagigun zure handitasuna, Jauna,
izan bere, Zeu bakarrik zara santua eta;
gutaz errukiturik,

zure Seme Jesu Kristo bialdu zenduan mundura.

Berak hasten dau eta garatzen dau santutasuna oso-osorik.

Berak bialdu eban jaiobarri zan Eleizearen gainera
Espiritu Santu Babeslea,

santutasunaren ezkutuak erakusten dituan ahotsa,
sendotasuna eta biguntasuna dakarren haize kirria,
eleiztarren bihotzak maitasun garrez isiotzen dituan sua,
graziazko frutu ugariak sortzen dituan jainko-hazia.

Aintza Zuri, gaur, Jauna,
zure zerbitzariak,

Espirituaren dohaiez bete zenduan **I.** santuaren ohorez,
irudi hau egin dabelako.

Egizu, Jauna, zure Semearen lorratzak jarraituz,
eta **I.** santuaren erakutsiak aintzat hartuz,
gizaki oso egin daitezala,

Kristo bere betetasunean egin zan neurrira.

Euren berbeaz eta euren ejenpluaz

iragarri dagiela Ebanjelioa,

beragaitik bildur barik euren odola isurtzeko gertu egonik;
leporatu dagiela egunero Kristoren kurutzea
eta egon daitezala oso osorik zure eta anai-arreben zerbi-
tzuan;

bete dagiezala mundu honetako uritar betebeharrak,

Kristoren Espirituz mundu hau beterik,
zeruko etxean begiradea jarrita.

Han, Zuk, Aita, hartu dagizuzan, egun baten,
zeure Semeagaz batean errege izateko.

Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

E/ Amen.

Edo:

Grazia eta santutasun guztien iturri zaran Jaungoikoa.

Begitu egiguzu ontasunez zure zerbitzarioi,

I. santuaren irudi hau jarri dogunoi,

eta egizu, somatu dagigula santu honen bitartekotasuna.

Berak, Kristoren lagun eta oinordekide eginik,

argi egiten deusku,

Ebanjelioari jagokon bizitzaren lekuko lez

eta Zure aurrean bitarteko bikain lez.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Bedeinkapen otoitzaren ondoren, ospatzaileak intsentsua jarten dau lurrin ontzian eta lurrindu egiten dau irudia. Bitartean kantu egoki bat abesten da.

Amaierea

Ospatzaileak herria bedeinkatzen dau, bere gainera eskuak zabaldurik, eta honako hau esanez:

Bere babes a gozatzea emon deusuen santuen aintza eta zoriona dan Jaungoikoak emon deizuezala betiko bedeinkapenak.

E/ Amen.

Santuaren bitartez, gaitz guztitik askatuak izan zaitezela,

eta euren bizitzaren erakutsiak adoreturik,

bizi zaitezela, eten barik,

Jaungoikoaren eta anai-arreben zerbitzuan.

E/ Amen.

Eta Jaungoikoak emon deizuela

erreinuaren zoriontasunean santuekin batzea.

Han, Eleizeak pozik ikusten ditu bere seme-alabak

zeruko Jerusalemgo bizilagunen artean.

E/ Amen.

Eta Jaungoiko ahalguztidunaren,

Aitaren eta Semearen ✠ eta Espiritu Santuaren bedeinkapena

jaitsi daitela zuengana eta lagundu deizuela beti.

E/ Amen.

Ondo legoke ohikunea abesti egoki batez amaitzea.

5. URAREN BEDEINKAPENA, MEZATIK KANPO

Bedeinkapen hau abadeak eta diakonoak egin daikée.

Hasierako ohikuneak

Alkartea baturik, honako hau dino ospatzaileak:

Aitarene eta Semearene eta Espiritu Santuarene izenean.

Aitarene egiten dabe danak eta erantzuten dabe: Amen.

Ospatzaileak, abadea zein diakonoa izan, han dagozanak agurtzen ditu, berba honeek esanez:

Uretik eta Espiritu Santuagandik
Kristogan barrero jaio eragin deuskun Jaungoikoa
izan bedi zuekin.

E/ Eta zure espirituarekin.

Liburu Santuetatik hartutako beste berba batzuk bere erabili daikez.

Ospatzaileak bedeinkapena hartzeko prestatzen ditu han dagozanak, berba batzuk esanez.

Jaungoikoaren Berbea

Ospatzaileak berak edo han dagozanen arteko batek Liburu Santuko atal bat irakurten dau.

Jn 7, 37-39

Jaietako azken egunean, egunik handienean, Jesusek zutik jarri eta oihu egin eban, esanez: «Egarri dana betor Nigana, eta edan begi Nigan sinesten dauanak. Liburu Santuak dinoan lez, ur biziko ibaiak jarioko jakoz barru-barrutik».

Berarengan sinestuko ebenek hartuko eben Espiritua-gaitik esan eban hori; izan bere, ez zan artean Espiriturik, Jesusen aintza ez zan oraindik azaldu eta.

Jaunak esana.

Baita irakurri daitekez: Is 12, 1-6; Is 55, 1-11; 1 Jn 5, 1-6; Ap 7, 13-17; Jn 13, 3-15.

Bedeinkapen otoitza

Isilune baten ondoren, ospatzaileak, eskuak zabaldurik, bedeinkapen otoitza esaten dau:

Bedeinkatua Jaungoiko Jaun ahalguztiduna,
Zeuk bedeinkatu gaituzu
eta gure salbamenaren ur bizia dan Kristogan
aldatu gaituzu barru-barrutik;
egizu, ur hau txipristinduz edo erabiliz babesten garanok
somatu dagigula gure arimearen gaztetasuna barriztauta,
eta beti bizi barriz jardun dagigula

Espiritu Santuaren indarrez.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Edo:

Jauna, Santu zaran Aita,
zuzendu egizuz zeure begiak gugana.
Zure Semeak erosirik, barriro jaio gara bateo iturrian,
uretik eta Espiritu Santuagandik.
Emoiguzu, arren, ur honez txipristindutako guztiak,
gorputzez eta arimaz barriztauta geratu daitezala
eta zerbidu zagiezala bizitza garbiz.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Edo, ospatzaileak dino:

Urez eta Espiritu Santuz
gizakia eta mundua moldatu zenduzan
eta gauza guztien egile zaran Jaungoikoa.

E/ *Bedeinkatu eta garbitu egizu zeure Eleizea.*

Kurutzean zure saihets edegitik
salbamenaren sakramentuak isuri zenduzan Kristo. E/

Eleizearen bateo altzotik
izaki barri egiten gaituzun Espiritu Santua. E/

Bedeinkapen otoitzaren ondoren, ospatzaileak ur bedeinkatuz txipristintzen ditu han dagozanak, honako hau esanez:

Ur honek gogoratu eragin deigula
bere heriotzaz eta biztueraz erosi ginduzan
Kristogandiko gure bateoa.

E/ Amen.

Ondo legoke ohikunea abesti egoki batez amaitzea.

V. ATALA

ERASPENEZKO GAUZEN BEDEINKAPENA

1. Edari, janari edo beste gauza batzuen bedeinkapena
2. Domina, kurutze, irudi, eskapulario, koroï eta debozinozko beste gauza batzuen bedeinkapena
3. Errosarioen bedeinkapena

1. EDARI, JANARI EDO BESTE GAUZA BATZUEN BEDEINKAPENA

Bedeinkapen hau abadeak nahiz diakonoak egin daike.

Hasierako ohikuneak

Alkartea baturik, kantu egoki bat abestu daiteke. Amaitutakoan, honako hau dino ospatzaileak:

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Aitaren egiten dabe danak eta erantzuten dabe: Amen.

Ospatzaileak, abadea nahiz diakonoa izan, han dagozanak agurtzen ditu, berba honeek esanez:

Santu izan gaitezan aukeratu ginduzan Jaungoikoa izan bedi zuekin.

E/ Eta zure espirituarekin.

Liburu Santuetatik hartutako beste berba batzuk bere erabili daikez.

Ospatzaileak bedeinkapena hartzeko prestatzen ditu han dagozanak, berba batzuk esanez.

Jaungoikoaren Berbea

Ospatzaileak berak edo han dagozanen arteko batek Liburu Santuko atal bat irakurten dau.

Mt 7, 7-11

«Eskatu, eta emongo deusue Jainkoak; bilatu, eta aurkituko dozue; jo atea, eta zabalduko deusue, eskatzen dauanak hartu egiten dau eta, bilatzen dauanak aurkitu, eta atea jotzen dauanari zabaldu egiten jako.

Zuetako norbaitek, semeak ogia eskatuta, harria emongo ete deutso? Edota arraina eskatuta, sugea emongo ete deutso? Beraz, zuek, gaiztoak izanik bere, zeuen seme-alabei gauza onak emoten badakizue, zenbatez gehiago ez deutsez zeruko zuen Aitak gauza onak emongo eskatzen deutsoezanei?

Jaunak esana.

Irakurgai ondoren, salmo bat (103a) esan edo abestu daiteke, edo beste abesti egokiren bat.

Ospatzaileak, labur, Bibliako irakurgai azaltzen dau, ospakizunaren esangurea fedez eurenganatu dagien.

Eskariak

Bere ustez egokienak diranak aukeratu edo gehitu daikez ospatzaileak.

Andra Mariaren (I. santuaren) bitartez, goratu dagigun Jaungoikoa, honako hau esanez:

E/ Zeure santuengan goratua zara, Jauna.

Andra Mariagan (I. santuagan), era miragarritz, zeure ahalmena erakutsi dozun Aita guztiz bihozbera,

- egizu, bateo graziaz lagundurik, geroago eta gehiago, gizaki barri bihurtu gaitetzala. **E/**

Zeure santu zerbitzarien bidez zeure errukia somatzea emoten deuskuzun Horrek,

- egizu, egin dagigula gure bizitzan euren bizitzan miresten doguna. **E/**

Zeure santuen bitartez, gizon-emakumeei Eleizearen santutasuna erakusten deutsezun Horrek,

- egizu, ahalegindu gaitetzala geure bizitza guztian zure aintza goratzen eta gure anai-arreben salbamena lortzen. **E/**

Santuak gure bitartekoak izatea gura izan dozun Horrek,

- egizu, oraingo gaitzetatik askatuta, gozatu dagigula, eurekin batera, betiko ondarea. **E/**

Bedeinkapen otoitza

Ospatzaileak, eleiztarren gainera eskuak zabaldurik, bedeinkapen otoitza esaten dau:

a) Janari eta edarientzat

Bedeinkatua izan zaitez,
zeure bedeinkapenaz dana beteten dozun
gure Jaungoikoa;
emon egiezu zeure zerbitzarietara
Zuk sortutako ondasun honeek
(Andra Mariaren oroimena eta bitartekotasuna dogula)
(jai honetan ospatzen dogun
I. santuaren oroimena eta bitartekotasuna dogula)
esker onez erabiliz,
hartu dagiela ugari zure graziaren zeruko iruntza,
beti zeruko gauzen bila jardun dagien
eta, eten barik, aurrera egin dagien maitasunean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

b) Beste gauza batzuentzat

Zure Eleizea santuen biziera eredu aberatsez
apaintzen dozun Jainko Jauna,
agertu zakiez bihozbera
zeure zerbitzari honeei.

Zure ontasunaren ezaugarri hau (honeek)
gartsu erabili gura dabe (dabez)
(Andra Mariaren oroipenez eta ohorez /
I. santuaren oroipenez eta ohorez).
Zure aginduenganako maitasunez beterik
eta oraingo bizitza honetako beharrianetan laguntza izanik,
azkenean bizitza hilezkoaren dohaia lortu dagiela.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Bedeinkapen otoitzaren ondoren, ospatzaileak ur bedeinkatuaz txipris-
tintzen ditu edariak, janariak eta enparauak.

Amaierea

Ospatzaileak ohikunea amaitzen dau, han dagozanen gainerantz eskuak
luzaturik.

Jaunak aintzat hartu dagiala zuen debozinoa eta emon dei-
zuela bere laguntza bizitzako une guztietan.

E/ Amen.

Emon deizuezala Berak bizitza nasaia eta bere ondasunen
ugaritasuna.

E/ Amen.

Bere maitasunaz zuzendu eta babestu zagiezala lur honetan eta eroan zagiezala zoriontsu zeruko aintzara.

E/ Amen.

Eta Jaungoiko ahalguztidunaren,
Aitaren eta Semearen ✠ eta Espiritu Santuaren bedeinkapena jaitsi daitela zuengana.

E/ Amen.

Ondo legoke ohikunea abesti egoki batez amaitzea.

Bedeinkapena jai-mezatan egiten danean, egunari jagokon herri otoitzak esaten da eta aurrean jarritako bedeinkapen otoitz batez amaitzen da. Egokia da Mezearen azkenean Andra Mariaren bedeinkapen nagusia erabiltea edo santuen jaietako herriarentzako otoitzen bat.

2. DOMINA, KURUTZE, IRUDI, ESKAPULARIO, KOROÏ ETA DEBOZINOZKO BESTE GAUZA BATZUEN BEDEINKAPENA

Bedeinkapen hau abadeak nahiz diakonoak egin daike.

Ohikune hau dominak, kurutze txikiak, leku sagaruetan jarriko ez diran erlijino-irudiak, eskapularioak, koroïak eta eraspen ariketetan erabilten diran tresnak bedeinkatzeko erabiliko da.

Hasierako ohikuneak

Alkartea baturik, hau dino ospatzaileak:

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Aitaren egiten dabe danak eta erantzuten dabe: Amen.

Ospatzaileak han dagozanak agurtzen ditu, berba honeek esanez:

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren grazia, errukia eta bakea izan bedi zuekin.

E/ Eta zure espirituarekin.

Liburu Santuetatik hartutako beste berba batzuk bere erabili daikez.

Ospatzaileak bedeinkapena hartzeko prestatzen ditu han dagozanak, berba batzuk esanez.

Jaungoikoaren Berbea

Ospatzaileak berak edo han dagozanen arteko batek Liburu Santuko atal bat irakurten dau.

2 Ko 3, 17b - 4,2

Eta Jaunaren Espiritua non, askatasuna han. Gu guztiok, aurpegia agirian dogula, Jaunaren aintza islatzen dogu, eta

haren irudira dihardugu erabarritzen, gero eta distiratsuago bihurtuz, Espiritua dan Jaunak eraginda.

Horregaitik, apostolu-zerbitzu hau Jainkoak bere errukiaz emon deuskula jakinik, ez dogu kemenik galtzen. Uko egin deutsegu isilpeko baliabide lotsagarriei; ez dogu azpikeriaz jokutzen, ezta Jainkoaren mezua faltsifikatzen bere. Bestetara, egia argi eta garbi azalduz, geure buruak sinesgarri bihurtzen deutseguz gizon-emakume guztiei Jainkoaren aurrean.

Jaunak esana.

Baita irakurri daitezke: Erm 8, 26-31; 1 Ko 13, 8-13; 1 Ko 15, 45-50; 2 Ko 4, 1-7; Lk 11, 5-13; Lk 18, 1-8.

Irakurgai ondoren, salmo bat (99a, esate baterako) esan edo abestu daiteke, edo beste abesti egokiren bat.

Ospatzaileak, labur, Bibliako irakurgaia azaltzen dau, ospakizunaren esangurea fedez eurenganatu dagien.

Eskariak

Bere ustez egokienak diranak aukeratu edo gehitu daikez ospatzaileak.

Anai arreбок: Ez dogu itxurazko jainkozaletasunik gura, bihotz-bihotzez autortzen doguna baino. Horregaitik, dei egin deiogun Jaunari, esanez:

E/ Bialdu egiguzu, Jauna, jainkozaletasun espiritua.

Zure harrigarriak guk beti gogoratzea gura dozun Jaungoiko guztiz errukitsua,

- egizu, tresna honeek gorputzeko begiekin ikusteak jaso gagizala zure errukiaren ezaugarriak ikustera. **E/**

Guk Zu Espirituz eta egiaz gurtzea gura dozun Horrek,

- emoiguzu, tresna honeen eta eurek adierazoten dabena-ren laguntzaz, beti zuzentasunez eta jainkozaletasunez jokatu dagigula. **E/**

Zure Semearen bitartez, beti otoitz egiteko agindua emon zeunskun Horrek,

- egizu, otoitzean jardunez, jainkozaletasunezko bizi-tza adeitsua izan dagigula. **E/**

Zure Eleizan gure santutasunerako eta jainkozaletasunerako, era harrigarritz, bateko eta besteko laguntzak emoten dozu-zan Horrek,

- egizu, Eleizearen eskutik hartzen doguna berari hazten laguntzeko erabili dagigula. **E/**

Bedeinkapen otoitza

Egin dagigun otoitz

Danak egiten dabe otoitz, isilean. Ospatzaileak, eskuak zabaldurik, bedeinkapen otoitza esaten dau:

Bedeinkatua Zu, Jauna,
bedeinkapen guztien iturria eta jatorria,
eta zure jarraitzaileen jainkozaletasun zintzoa
pozik hartzen dozuna.

Zure zerbitzarion gurariak
entzun dagizuzala eskatzen deusugu.
Egizu, fedearen eta jainkozaletasunaren
ezaugarri honeek eroanik,
ahalegindu daitezala zure Semearen irudi bihurtzen.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

E/ Amen.

Amaïerea

Ospatzaileak ohikunea amaitzen dau, honako hau esanez:

Kristogan bere aintza agertu deuskun Jaungoikoak
egin dagiala zuen bizitza bere irudi izatea,
egunen baten bera zuen artean aintzaz egotearen atsegina
izan dagizuen.

E/ Amen.

Eta Jaungoiko ahalguztidunaren,
Aitaren eta Semearen ☩ eta Espiritu Santuaren bedeinkapena
jaitsi daitela zuengana.

E/ Amen.

Ondo legoke ohikunea abesti egoki batez amaitzea.

OHIKUNE LABURRA

Hasierako ohikuneak

Alkartea baturik, kantu egoki bat abestu daiteke. Amaitutakoan, hauxe dino ospatzaileak:

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Aitaren *egiten dabe danak eta erantzuten dabe:* Amen.

Ospatzaileak han dagozanak agurtzen ditu, berba honeek esanez:

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren
grazia, errukia eta bakea izan bedi zuekin.

E/ Eta zure espirituarekin.

Liburu Santuetatik hartutako beste berba batzuk bere erabili daitez.

Jaungoikoaren Berbea

Ospatzaileak berak edo han dagozanen arteko batek Liburu Santuko atal bat irakurten dau.

Erm 8, 26b.27b

Guk ez dakigu-eta behar dan lez otoitz egiten; baina Espirituak berak erregutzen dau gure alde esan ezin ahalako zizpuruz.

Kol 3, 17

Edozer esaten nahiz egiten dozuela, egizue dana Jesu Kristo Jaunaren izenean, Beraren bidez Jainko Aitari eskerrak emonez.

Lk 11, 9-10

Hauxe esaten deusuet, beraz: «Eskatu, eta emongo deusue Jainkoak; bilatu, eta aurkituko dozue; jo atea, eta zabalduko deusue; eskatzen dauanak hartu egiten dau eta, bilatzen dauanak aurkitu, eta atea jotzen dauanari zabaldu egiten jako.

Bedeinkapen otoitza

Ospatzaileak, eskuak zabaldurik, bedeinkapen otoitza esaten dau:

Egin dagigun otoitz.

Danak egiten dabe otoitz, isilean. Ospatzaileak, eskuak zabaldurik, bedeinkapen otoitza esaten dau:

Jaunak, bere bedeinkapenaz ✠, gehitu eta indartu dagizala zure debozino eta jainkozaletasun sentipenak, zure oraingo bizitza eragozpen barik joan daiten eta betikoa zoriontsu lortu dagizun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Batzuetan, abadeak eta diakonoak honako hau bere erabili daikee:

Aitaren eta Semearen ✠ eta Espiritu Santuaren izenean.

E/ Amen.

3. ERROSARIOEN BEDEINKAPENA

Bedeinkapen hau abadeak nahiz diakonoak egin daike.

Hasierako ohikuneak

Alkartea baturik, hau dino ospatzaileak:

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Aitaren egiten dabe danak eta erantzuten dabe: Amen.

Ospatzaileak han dagozanak agurtzen ditu, berba honeek esanez:

Birjinagandik jaiotako bere Semeagan ondasun guztien iturri dan Jaungoiko gure Aitaren grazia eta bakea izan bedi zuekin.

E/ Eta zure espirituarekin.

Liburu Santuetatik hartutako beste berba batzuk bere erabili daitez.

Ospatzaileak bedeinkapena hartzeko prestatzen ditu han dagozanak, berba batzuk esanez.

Jaungoikoaren Berbea

Ospatzaileak berak edo han dagozanen arteko batek Liburu Santuko atal bat irakurten dau.

Lk 2, 46-52

Hiru egunen buruan, tenpluan aurkitu eben, irakasleen artean jesarrita, hareei entzuten eta itaunka. Entzuten eutsoen guztiak txunditurik egozan erantzunetan azaltzen eban argitasunagaitik. Gurasoak, ikusi ebenean, harriturik gelditu ziran, eta amak esan eutson: «Seme, baina zergaitik egin deuskuzu hori? Horra zelako atsekabez ibili garean aita eta biok zure bila!» Harek erantzun eutsen: «Zergaitik ibili zaree nire bila? Ez al zenkien Nik neure Aitaren etxean egon behar dodala?» Hareek, ostera, ez eben ulertu zer esan nahi eutsen.

Jesus Nazaretera jaitsi zan eurekin, eta hareen menpean bizi zan. Haren amak bere bihotzean gordeten zituan gauza guzti honeek.

Jesus, barriz, aurrera joian jakiturian, gorpuzkeran eta grazian, Jainkoaren eta gizakien begietan.

Jaunak esana.

Eg 1, 12-14

Jesus zerura igon ondoren, apostoluak Jerusalemenera bihurtu ziran Oliamenditik –mendi hau Jerusalemetik hur dago, kilometro batera eskas–.

Etxera heldurik, bizi ziraneko goiko gelara igon eben. Honeek ziren: Pedro, Joan, Santiago eta Andres, Felipe eta Tomas, Bartolome eta Mateo, Santiago Alfeoren semea eta Simon Zelote, eta Judas Santiagoren semea. Guztiok, emakume batzuekin eta Jesusen ama Maria eta senideekin, bihotz batez otoitzari emonak bizi ziran.

Jaunak esana.

Baita irakurri daitezke: Erm 8, 26-31; 1 Ko 13, 8-13; 1 Ko 15, 45-50; 2 Ko 4, 1-7; Lk 11, 5-13; Lk 18, 1-8.

Irakurgai ondoren, salmo bat (112a, esate baterako) esan edo abestu daitezke, edo Magnificat edo beste abesti egokiren bat.

Ospatzaileak, labur, Bibliako irakurgaiak azaltzen deutse han dagozanei, ospakizunaren esangurea fedez eurenganatu dagien.

Eskariak

Bere ustez egokienak diranak aukeratu edo gehitu daitezke ospatzaileak.

Errosarioa Andra Mariaganako gure debozinoaren aparteko ezaugarritzat hartzen danez, zuzendu deioguzan gure eskariak Jaunari, Birjina beraren laguntzaz, honako hau esanez:

E/ Egizu, Jauna, Mariaren bitartez, gehiago alkartu gaitzezala Kristogaz.

Aita guztiz errukitsua. Zure berbea onartzearen erospenaren ekintzan zure laguntzailatzat aukeratu zenduan Maria,

- egizu, zure Eleizeak, Birjina guztiz santuaren beraren bitartez, hartu dagizala ugari erospenaren ondorenak. **E/**

Maria Birjina Kristo zure Semeagaz hain estu lotzean, grazia-
ren osotasunez harrigarri bete zenduan Horrek,

- egizu somatu dagigula beti bera graziaren bitarteko. **E/**

Maria Birjinagan Kristoren jarraipenaren eredu bete-betea emon gura izan deuskuzun Horrek,

- egizu, errosarioan gogoratzen doguzan misterioak gure bizitzan barritzen ahalegindu gaitzezala. **E/**

Maria Birjinari bere bihotzean zure berba guztiak gordeten irakatsi zeuntson Horrek,

- egizu, bere antzera, fedez onartu dagiguzala eta bete dagiguzala zure Semearen berbak. **E/**

Maria Jesusen Amagaz otoitzean ziharduela apostoluei Espiritu Santua emon zeuntsen Horrek,

- emoiguzu, otoitzean jardunaz, Espirituagaitik bizi garen lez, Espirituari jarraitu deiogula. **E/**

Bedeinkapen otoitza

Egin dagigun otoitz.

Danak egiten dabe otoitz, isilean. Ospatzaileak, eskuak zabaldurik, bedeinkapen otoitza esaten dau:

Bedeinkatua Jaungoiko gure Aita.

Berak emoten deusku

bere Semearen misterioak gogoratzea eta ospatzea.

Emon deigula Berak bere grazia,

errosarioaren eskabideek gu eutsirik,

Jesusen eta bere Ama Mariaren pozak, minak eta aintza,

gure bihotzean, eten barik, hausnartzen eta zaintzen ahalegindu gaitzezan.

E/ Amen.

Edo:

Jaungoiko ahalguztiduna,

zure jarraitzaileek errosarioa gogotsu esanez,

eskatu dagiela, uste osoz, Maria Birjinaren babesa,

eta Jesu Kristoren misterioak eten barik hausnartuz,

barriztau dagiezala euren bizitzan.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Edo:

Jaungoiko ahalguztiduna eta errukiz betea,
 zure maitasun handiagaitik,
 zure Semea, Espiritu Santuaren egitez,
 Maria Birjinaren sabelean gizon egin eitela,
 kurutzeko heriotzea jasan egiala
 eta hilen artetik biztu eitela, gura izan zenduan.
 Bedeinkatu egizuz, zeure Semearen Amaren ohorez
 ezpanakin eta bihotzez otoitz eginaz,
 errosario honeek erabiliko dabezan danak.
 Euren eraspina gehitu daitela eta
 heriotzako orduan
 Maria Birjineak berak eroan dagizala zure aurrera.
 Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Gero errosarioa esaten da.

Amaierea

Ospatzaileak ohikunea amaitzen dau, honako hau esanez:

Mundua alaitasunez bete dauan Jaungoikoak
 bete zagiezala bere bedeinkapenez
 Andra Mariaren bitartez.

E/ Amen.

Eta hemen zagozen guztiok
 bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak,
 Aitak eta Semeak ✠ eta Espiritu Santuak.

E/ Amen.

OHIKUNE LABURRA**Hasierako ohikuneak**

Alkartea baturik, kantu egoki bat abestu daiteke. Amaitutakoan, hauxe
 dino ospatzaileak:

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Aitaren egiten dabe danak eta erantzuten dabe: Amen.

Ospatzaileak han dagozanak agurtzen ditu, berba honeek esanez:

Birjinagandik jaiotako bere Semeagan
 ondasun guztien iturri dan Jaungoiko gure Aitaren
 grazia eta bakea izan bedi zuekin.

E/ Eta zure espirituarekin.

Liburu Santutik hartutako beste berba batzuk bere erabili daikez.

Jaungoikoaren Berbea

Ospatzaileak berak edo han dagozanen arteko batek Liburu Santuko atal bat irakurten dau.

Lk 2, 51b-52

Amak bere bihotzean gordeten zituan gauza guzti honek.

Jesus, barriz, aurrera joian jakiturian, gorpuzkeran eta grazian, Jainkoaren eta gizakien begietan.

Eg 1, 14

Guztiok, emakume batzuekin eta Jesusen ama Maria eta senideekin, bihotz batez otoitzari emonak bizi ziran.

Bedeinkapen otoitza

Ospatzaileak, eskuak luzaturik, bedeinkapen otoitza dino:

Egin dagigun otoitz.

Bedeinkatua Jaungoiko gure Aita,
Berak emoten deusku
bere Semearen misterioak gogoratzea eta ospatzea.
Emon deigula Berak bere grazia,
errosarioaren eskabideek gu eutsirik,

Jesusen eta bere Ama Mariaren
pozak, minak eta aintza,
gure bihotzean eten barik
hausnartzen eta zaintzen ahalegindu gaitazan.
Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Edo:

Gure Jaunaren
bizitza, heriotza eta biztuera misterioak gogoratu,
Andra Maria Kristoren eta Eleizearen Amaren ohorez,
errosario honegaz
gartsu otoitz egingo daben gizon-emakumeak
bedeinkatuak izan daitezala:
Aitaren eta Semearen ✠ eta Espiritu Santuaren izenean.

E/ Amen.

LABUR

Egoera batzuetan, abadeak edo diakonoak honako esatera hau erabili daike:

Aitaren eta Semearen ✠ eta Espiritu Santuaren izenean.

E/ Amen.

VI. ATALA

BESTE EGOERA BATZUETARAKO BEDEINKAPENA

- 1. Bateko eta besteko egoeratarako bedeinkapena**

1. BATEKO ETA BESTEKO EGOERATARAKO BEDEINKAPENA

Aurreko ohikuneetan beren-beregi sartzen ez diran bedeinkapenei egokitu daitezkie honako ohikune hau.

Hasierako ohikuneak

Alkartea baturik, kantu egoki bat abestu daiteke. Amaitutakoan, hauxe dino ospatzaileak:

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Aitaren egiten dabe danak eta erantzuten dabe: Amen.

Ospatzaileak han dagozanak agurtzen ditu, berba honeek esanez:

On guztien iturri dan Jaungoikoa izan bedi zuekin.

E/ Eta zure espirituarekin.

Liburu Santuetatik hartutako beste berba batzuk bere erabili daitez.

Ospatzaileak, laikoa bada, honan egiten dau agurra:

Bedeinkatu dagigun on guztien iturri dan Jaungoikoa.

Ospatzaileak bedeinkapena hartzeko prestatzen ditu han dagozanak, berba batzuk esanez.

Jaungoikoaren Berbea

Ospatzaileak berak edo han dagozanen arteko batek Liburu Santuko atal bat irakurten dau.

Kol 1, 9b-14

Eten barik dihardugu zuen alde otoitzean. Jainkoari eskatzen deusagu, jakituria osoz eta Espirituak emoten dauan ulermenaz jantzirik, Jainkoaren guraria bete-betean ezagutu dagizuela. Holan, Jaunak nahi dauan eran biziko zaree, atsegin dauan guztia eginez, era guztitako egintza onen frutua emonez eta Jainkoa gero eta hobeto ezagutuz.

Haren ahalmen aintzatsuak indartzen zaitue, dana jasateko iraupena eta pazientzia izan dagizuen eta, pozez beterik, eskerrak emon deiozuezan Aitari, argiaren erreinuan bere herri santuarentzat prestatuak dituan ondasunetan parte izateko gai egin zaituenari. Berak atara gaitu ilunpearen men-

petik eta bere Seme maitearen erreinura aldatu; Honengan dogu askapena, Honengan pekatuen parkamena.

Jaunak esana.

Erm 8, 24-28

Salbatuak gagoz, bai, baina itxaropenean bakarrik. Eta itxaron doguna ikusiko bagendu, hori ez litzateke itxaropena. Izan bere, zelan itxaron ikusten doguna? Baina ikusten ez doguna itxaroten badogu, iraupenez behar dogu itxaron.

Era berean, Espiritua jatorku geure ahulerian lagun, guk ez dakigu-eta behar dan lez otoitz egiten; baina Espirituak berak erregutzen dau gure alde, esan ezin ahalako zizpuruz. Eta bihotzak aztertzen dituan Jainkoak ezagutzen dau zein dan Espirituaren gogoa, Espirituak Jainkoaren asmoen erara erregutzen dau-eta fededunen alde.

Badakigu Bera maite dabenen onerako bideratzen dituala Jainkoak gauza guztiak, bere aurre-erabagiaz deitu deusenen onerako, hain zuzen bere.

Jaunak esana.

1 Tim 4, 4-5

Izan bere, Jainkoak sortutako guztia ona da, eta eskerrak emonez hartu ezkerok, ez da ezer baztertzekorik, Jainkoaren berbeak eta gure otoitzak sakratu bihurtzen dau eta.

Jaunak esana.

Baita irakurri daitezke: Zen 6, 22-27; Si 18, 1-9.

Irakurgai ondoren, salmo bat (104a, esate baterako) esan edo abestu daitezke, edo beste abesti egokiren bat.

Ospatzaileak, labur, Bibliako irakurgaia azaltzen dau, ospakizunaren esangurea fedez eurenganatu dagien.

Eskariak

Bere ustez egokienak diranak aukeratu edo gehitu daitezke ospatzaileak.

Jaungoikoak maite dau sortu dauan guztia eta bere bedeinkapenez zaintzen dau. Orain, bere bedeinkapena eta bere poza emon deiguzala eskatu deiogun, esanez:

E/ Jauna, jaitsi daitela gugana zeure bedeinkapena.

Zure borondatearen menpe bihotz-bihotzez jarten gareanean bizitza honen esangura sakonagoa emoten deuskuzun betiko Jaungoikoa,

- bete gazuz zeure santutasun espirituaz. *E/*

Zure dohaiak Zeuri eta gure anai-arrebei gehituta bihurtzea gura dozun Horrek,

- onartu egizu gure menpekotasunaren eta gure maitasunaren eskeintza. *E/*

Beti errukizko begiekin begirutzen deuskuzun Horrek,
- entzun egizu, Jauna, Zugan itzaroten dogunon ahotsa. *E/*

Pekatuaren madarikapena apurtu egian eta zure bedeinkapena ekarri egin zure Semea mundura bialdu zenduan Horrek,

- bedeinkatu gazuz Beragan zeruko ondasun guztiekin. *E/*

“Abba”, Aita, dei eragiten deuskun zure Semearen Espiritua gure bihotzetara bialdu zenduan Horrek,

- entzun egizuz zeure aita-ontasuna autortzen eta goratzen dogunoi. *E/*

Zure Semearen heriotza eta biztueragaitik zeure herri eta ondare izateko aukeratu gaituzun Horrek,

- gogoratu zaitetz gutaz gure beharrianetan eta bedeinkatu egizu zeure ondarea. *E/*

Bedeinkapen otoitza

Egin dagigun otoitz.

Ospatzaileak, abadea bada eskuak luzaturik eta diakonoa bada eskuak baturik, bedeinkapen otoitza esaten dau:

a) Sortutako gauzentzat

Bedeinkatua Zu, munduaren Sortzaile,

onak egin zenduzan gauza guztiak

eta gizakiaren esku itzi zenduan lurra, berak landu egian;

egizu, Zeuk sortutako gauzak esker onez erabili dagiguzala beti eta, zure dohai dirala aintzat harturik, banandu dagiguzala preminan dagozanekin, Kristo gure Jaunaren maitasunean. Errege bizi da-eta, gizaldi eta gizaldietan.

E/ Amen.

Edo:

Bedeinkatzen zaitugu Jauna, santu zaran Aita; dana izan zan egina zure berbaz eta ahalmenez. Zeuk emonda hartu dogu gure bizitzarako behar dogun guztia. Zure jarraitzaileok, zure borondatea gogotsu beteaz, esker onez erabili dagiguzala izaki honeek. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Betiko ondasunak lortu gura izan egizan, gizakia bizitza honetako ondasunez egoki horniduta sortu zenduan Jaungoiko ahalguztidun eta betikoa. Entzun egizuz gure eskariak eta emoiguzu, lurreko ondasunen pozez indarturik, izan dagigula bizi ahal izateko nahikoa eta lortu dagigula, azkenean, Zuk agindutako ondarea. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

b) Giza eskuz egindako gauzentzat

Jaungoiko ahalguztidun eta betikoa, gizakiaren esku itzi zenduan sortutako mundua, batak besteari maitasunez lagundu egion. Entzun egizuz gure eskariak. Honeen bidez, euren beharrezan jagokenez erabiliko dituenentzat zure bedeinkapena eskatzen dogu, beti Zeu ondasunik handienentzat autortu zagiezan eta bihotz zintzoz maite izan dagiezan euren anai-arrebak. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

c) Bizitzako une baterako eta besterako

Egizu, Jauna, zure jarraitzaileek aurkitu dagiela, zeure errukiaren ugaritasunean, ziurtasuna eta aberastasuna. Eta egizu, zeure bedeinkapenez babesturik, eskerrak emoten jardun dagiela eten barik, eta poztasunez gainezka, bedeinkatu zagiezala. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Edo:

Egizu, Jauna, zeure jarraitzaileak,
zeure bedeinkapenaren indarrez,
egon daitezala gertu, barru barrutik, on egiteko,
euren ekintza guztiak
zeure maitasunak indarturik eta eraginik burutu dagiezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Edo:

Adoretu gagizuz, Jauna, zeure jarraitzaileok
Zeugandik eskatzen dogun bedeinkapenaz,
zure borondatetik behin bere aldendu ez gaitzean
eta zure mesedeak beti eskertu dagiguzan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Edo:

Jauna, bedeinkatu egizu zeure herria.
Zeure errukia itxaroten dago beti.
Hartu dagiala zeure esku zabaletik
Zeuk eskatzera bultzatzen dozun guztia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Edo:

Jauna, zure herriak hartu dagizala
zeure bedeinkapen zabalaren frutuak,
pekatu guztitik askaturik,
gura dituan ondasunak lortu dagizan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E/ Amen.

Amaierea

Ospatzaileak, abadea nahiz diakonoa izan, ohikunea amaitzen dau honako hau esanez:

Izaki guztietan bedeinkatua dan Jaungoikoak,
bedeinkatu zagiezala danean Kristoren bitartez,
dana zuen onerako izan daiten.

E/ Amen.

Eta Jaungoiko ahalguztidunaren,
Aitaren eta Semearen ✠ eta Espiritu Santuaren bedeinkapena
jaitsi daitela zuengana.

E/ Amen.

Ospatzaileak, laikoa bada, Aitaren eginaz eta hau esanez amaitzen dau ohikunea:

Izaki guztietan bedeinkatua dan Jaungoikoak,
bedeinkatu gaziala danean Kristoren bitartez,
dana gure onerako izan daiten.

E. Amen.

Ondo legoke ohikunea abesti egoki batez amaitzea.

AURKIBIDEA

I. ATALA PERTSONEN BEDEINKAPENA

1. Familiaren bedeinkapena	9
2. Umeen bedeinkapena	13
3. Zaharren bedeinkapena	19
4. Gaixoen bedeinkapena	25
5. Katekesia emon behar dabenen bedeinkapena	32
6. Herri beharrizanetarako laguntza-alkarteen bedeinkapena	36
7a. Erromesen bedeinkapena: bidea hasterakoan	41
7b. Erromesen bedeinkapena: etxeratu ondoren.....	45
8. Bidaia bat hasi behar dabenen bedeinkapen laburra	50

II. ATALA ERAIKINEN ETA LAN-TRESNEN BEDEINKAPENA

1. Etxe barriaren bedeinkapena	55
2. Ikastetxearen bedeinkapena	64
3. Liburutegi barriaren bedeinkapena	73

4. Eritetxe edo Osasunetxearen bedeinkapena	78
5. Laborategi, Lantegi edo Dendaren bedeinkapena	84
6. Kiroldegiaren bedeinkapena	90
7. Bidaiekin zerikusia dauken gauzen (zubiak, errepideak, ibilgailuak, txalupak...) bedeinkapena	95
8. Lan-tresnen bedeinkapena	106

III. ATALA

ABERE, SOLO ETA FRUTU BARRIEN BEDEINKAPENA

1. Abereen bedeinkapena.....	117
2. Soloen bedeinkapena.....	125
3. Frutu barrien aurkezpenaren bedeinkapena	131

IV. ATALA

LITURGIARAKO EDO ERASPENETARAKO ELEIZAN ERABILTEN DIRAN GAUZEN BEDEINKAPENA

1. Kurutzearen bedeinkapena	139
2. Jesu Kristo gure Jaunaren irudiaren bedeinkapena ..	145
3. Ama Birjinaren irudiaren bedeinkapena	152
4. Santuen irudiaren bedeinkapena	159
5. Uraren bedeinkapena, Mezatik kanpo	166

V. ATALA

ERASPENEZKO GAUZEN BEDEINKAPENA

1. Edari, janari edo beste gauza batzuen bedeinkapena	173
2. Domina, kurutze, irudi, eskapulario, koroï eta debozi- nozko beste gauza batzuen bedeinkapena	178
3. Errosarioen bedeinkapena	185

VI. ATALA

BESTE EGOERA BATZUETARAKO BEDEINKAPENA

1. Bateko eta besteko egoeratarako bedeinkapena	197
---	-----